1919·2019

ARGIA

21 LANDA EREMUEN DESPOPULAZIOA

UDALERRIEN GEROA *zalantzan*

#2.653 | 2019/07/21 | 3,90 €

Etiopiako labore xumea lapurtu eta patentatu diete
10 I NAZIOARTEA

Informazio eskubidearen urraketa
28 I EGIN-GARA

"Inaugurazioetan jendeak ez du ikusten obrarik ia"
44 I ALAIN URRUTIA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN…

LARRUN #244

HILABETEKARI MONOGRAFIKOA

EMAKUME AURPEGIDUN PREKARIETATEA

ARGIA.EUS/LARRUN

ARGIA

2.653 zenbakia I Uztailak 21, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I GAIZKI ERRANKA
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

17 I MIKEL ZURBANO
18 I IRATI ELORRIETA
19 I ENEKO GORRI
19 I LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
20 I MIKEL BASABE KORTABARRIA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

38 I BIZI BARATZEA
40 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I DENBORAREN MAKINA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA:
MARÍA LUISA GARDE
54 I BERANDUEGI

ARGIAREN ARTXIBOA / ALBERTO ELOSEGI

28 I ***EGIN-GARA*, INFORMAZIO ESKUBIDEAREN ZAPALKETA:**
Egin egunkariaren itxierak sortu zuen zorra *Gara*-ri egotzi eta ordainketak egitera behartu arteko ibilbidea aztertu du Xabier Letonak, garaiko testuinguru politiko nahasiari errepasoa eginez. Gaur egun lapurretari aurre egiteko egiten ari diren lanaz mintzatu ere kanpainako arduradun Asier Iñigorekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Teffa: Etiopiako labore xumea super-elikagai bihurtu dute, patentatu eta ostu ondoren
Pello Zubiria Kamino

12 I IDOIA TORREGARAI
"Berto Romero hain da itsusia, ezen harrika hilko lukete emakumea balitz"
Reyes Ilintxeta

21 I LANDA EREMUAK BIZTANLEAK GALTZEN
Lurraldea orekatzeko adostasun soziopolitiko berriak eraiki behar dira
Mikel Asurmendi

32 I GLOVO (III)
Nor dira sortzaileak? Nondik dator enpresa hau?
Paul Iano

36 I OSASUN ZENTROAK UDALERRI EUSKALDUNETAN
Bost langiletik batek ez daki euskaraz
Gorka Peñagarikano Goikoetxea

44 I ALAIN URRUTIA, MARGOLARIA
"Dena da irudi, baina jendeak ez du denborarik hartzen irudi horiek ikusteko"
Gorka Erostarbe Leunda

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iñaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gaztelueko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza komunikazio grafikoa
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Ikusi arte

Kontzertu berezia eskaini du Berri Txarrak taldeak Bilboko Kobetamendin. Gorka Urbizu, David Gonzalez eta Galder Izagirrek 20.000 lagunetik gora batuz agerian utzi dute berriro ere euskarazko musikagintzan fenomeno kultural bilakatu direla. Aurreko egunean amaitu den BBK Live festibalaren azpiegitura baliatu dute eta Urbizuk oholtzatik keinu egin zien langile nekatuei beren lan baldintzak salatuz. Dozena bat gonbidatutik gora pasa ziren agertokitik hiru ordutik gorako emanaldian eta denen artean errepasoa eman zioten diskografiari. Argazkian momentu beroetako bat, Anari eta Karlos Osinaga 'Txap' *Oreka* kantuan kolaboratzen.

IBAI ARRIETA LANDER ARBELAITZ MITXELENA

EUSKALGINTZA EZ DA LAN GATAZKA BATEKIN LOTZEN, ETA HORREK ASKOTAN EKARTZEN DU ESKALE GISA IBILI BEHAR IZATEA ADMINISTRAZIOAREN AURREAN. EZ NAIZ ESATEN ARI GREBARA JO BEHAR DUGUNIK, BAIZIK ETA SARRITAN IKUSEZINAK GARELA: ASKORI EZ ZAIE BURUTIK PASATZEN AEK-N 500 LANGILE ETA 12.000 IKASLE GARELA. ENPRESA POTENTEA GARA ZENBAKI HORIETAN. BAINA BESTE ZENBAKI BATZUETAN, EZ HAINBESTE.

Mertxe Mujika (*Berria*)

HORRELAKO LIBURUEK ["PAPE NIANG. HASIERA BERRI BAT"] OROITARAZTEN DIGUTE EUROPAR KOLONIALISMO BERRIA INDARREAN DELA, ETA HORREK MIGRATZAILEAK SORTZEN JARRAITUKO DUELA, ETA DENOK GARELA HEIN BATEAN ERANTZULE, AGINTARIAK GEHIAGO BAINA AGINTEGABEAK ERE BAI, ETA PLANETA BAKAR HONETAKO GIZAKI GISA EZIN DUGULA BETI BESTALDERA BEGIRATU.

Pako Sudupe (*Argia.eus*)

NAFARROAKO OINARRIEK ERABAKIKO DUTE ZER EGINGO DEN NAFARROAN (…) INBESTIDURA URRATS BAT DA, BAINA GERO GOBERNATU EGIN BEHAR DA; LAU URTE HORIETAN EH BILDU OINARRIZKOA IZANGO DA

Mertxe Aizpurua, EH Bildu (Onda Vasca)

GAUR 85 URTE JAIO ZEN MONIQUE WITTIG. HETEROXUALITATEA EZ DA AUKERA BAT, MUNDUA ANTOLATZEKO INPOSATUTAKO MODU BAT BAIZIK. EUSKARAZ IRAKURTZEKO AUKERA PAREGABEA EMAN ZIGUN @LISIPESUSA-K 2017AN #PENTSAMENDUHETEROZUZENA

@pmendibil

Stanley, genozida baten konplizea gurean

URKO APAOLAZA

Esploratzaile mitikoa Araban izan zela 150 urteak ospatu dituzte hilaren hasieran Gasteizen eta Kanpezun. Kazetariak bertatik bertara ezagutu zuen Euskal Herria bidaia horretan, eta labanaz idatzita utzi zuen bere izena Gasteizko arbola batean. Belgikako Leopoldo II.a genozidaren zerbitzura Kongoko herritarrak odolusteko erabiliko zuen gero labana bera, "bide komertzial berriak" aurkitzeko aitzakian.

Uztailaren 3an bete dira 150 urte Henry Morton Stanley esploratzaile eta kazetariak lehen bisita egin zuela Arabara, Euskal Herria gerraren atarian zela. *The New York Herald* egunkariaren korrespontsala zen eta Kanpezuko karlisten matxinadaren berri ematera etorri zen gurera –hango alkate liberala hil zuten liskarretan–. Bide batez, "euskal probintzien eta bere jendeen" deskribapen zabala egin zuen erreportajean. Henry Morton Stanleyk kale bat du Arabako hiriburuan, Zabalgana auzoan.

Esploratzailearen biografia zehatza idatzita dauka Franck McLynn historialariak, eta afrikar jendeekin erabiltzen zituen metodoak azalerazi ditu. Hipopotamo azalez eginiko zartailu batekin zigortzen zituen zamaketariak, eta kateaz lotu esklaboak bailiran. Kongo ibaiaren iturburua aurkitzeko bidaian abiatu ziren 356 lagunetik 114 baizik ez ziren bizirik irten baldintza horietan. Bidean, "28 herri handi eta lauzpabost herrixka eraso eta deuseztatu" zituen, egunerokoan idatzi zuenez.

Leopoldo II.ak Kongon egindako genozidioa –10 eta 15 milioi pertsona artean hil ziren– ez litzateke posible izango Stanleyk emandako laguntzarik gabe. Stanleyren jaioterrian, Galeseko Denbighen, eztabaida bizia sorrarazi zuen 2010ean bere omenez jasotako brontzezko estatua batek –Kinshasan bazen beste irudi bat, baina Mobutu boterera iritsi ondoren hankak moztu eta lurrera bota zuten–. Gurean, aldiz, nahiago izan dugu Stanleyren iragan beltz horri ezikusiarena egin eta "Gasteizko eraztun berdea erabili zuen lehena" izan zela azpimarratu, egiaz izan zena ez esateko: genozida baten konplizea. ●

(Artikulu osoa Urko Apaolazaren *Angelu Itsua* blogean)

GAIZKI ERRANKA

Danbatekoa

SANTI LEONÉ

Udako aisia aprobetxatuz, paper zaharrak berriz irakurtzen ibili dela erran dit lagun batek. Ni ere bai. Egiari zor, hain zaharrak ere ez dira. Aurkitutakoen artean, lagunarenaz gainera, Alberto Barandiaranen artikuluak izaten nituen nik gustuko: luzeak, sakonak eta –gehiagotan erran behar da– behar-beharrezkoak.

Haizegua liburuari eskaini ziona da nire gogokoenetarik. Gogora ekartzen zuen Barandarianek nola prestatu zuten liburua Pio Caro Barojak eta Eduardo Gil Berak, eta nola aurkeztu zuten XIX. mendeko Martin Indaburu izeneko poeta batena balitz bezala, Zugarramurdiko borda batean kausitua; nola Atxaga izan zen josteta literario hartaz ohartzen lehena edo lehenetarik, ongiegi idatzia zegoelako.

Gil Beraz mintzatzeko aitzakia da *Haizegua,* hein handi batean. Geroago, *Baroja o el miedo* biografia idatzi zuen, Itzean bonba bat bezala erori zena. Gertatzen diren gauzak dira. Niri, aitortu behar dut, izugarri gustatu zitzaidan liburua, gaiagatik baino gehiago estiloagatik, ironiaren eta sarkasmoaren egiazko *tour de force*-a baita. Noizbait, Gil Berak bezala idazten jakin nahi nuke.

Barandarianek aipatzen du, Indabururena eta Barojarena egin baino lehen, zenbait liburutan gogoeta egin zuela gure idazleak, euskaraz, baina bere blogean, bere bibliografia biltzen duen atalean atzenduak dituela liburu horiek, bertze bizitza batean idatziak izan zirenak.

Behin baizik ez dut Eduardo Gil Bera ikusi. Duela anitz urte, Iruñeko Baluarten egindako ekitaldi inportante batean. Inportantea behar izan zuen izan, Miguel Sanz orduko lehendakaria mintzatu baitzen. Zenbaitek ez genion txalorik egin. Joxemiel Bidador zenarekin eta bertze lagun batekin joan nintzen. Bidador Gil Bera agurtzera hurbildu zen. "Eduardozalea duk Joxemi" xuxurlatu zidan bertze lagunak belarrira.

Ni ere bai. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"NIRE INBESTIDURA ATZERA BOTATZEKO ANTZERKI BATEN AURREAN GAUDE"

PEDRO SÁNCHEZ, ESPAINIAKO GOBERNUKO LEHENDAKARIA (PSOE):
"Iglesiasek negoziazioak aldebakarrez apurtu ditu, hortaz hitz egiten ari gara. Antzerki handi baten aurrean gaude, horrela nire inbestidura bigarrengoz atzera botatzea justifikatu ahal izateko".

CADENA SER (2019/07/15)

EKONOMIAREN TALAIAN

AHTko aurrekontuak

JUAN MARI ARREGI

Hain gardentasun gutxi dago AHTren obretako aurrekontuaren bilakaeran, aldiro sortzen den ezein albiste txantxaz hartzen duela mundu guztiak. Eta martxan jartzeko datarekin zer esanik ez. Auzo lotsa ematen du gai horretan eskumena duen Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako sailburua ikustea orain hau esan eta gero hitza jaten. Baina Euskal Y-arena ez da barre egiteko kontu bat. Oso larria den zerbait da, bere sorreratik. "Estatu gai bat" bezala ikusia, sekula ez da zalantzan jarri nahi izan erakundeen partetik, are gutxiago eztabaida eta erreferendum baten aldarrikapenarekin bat egin.

Herritarren kontrako ekimen antisozial honen arduradunek, Madril eta Gasteizko gobernuek, 2006an aurrekontua egin zuten 175 kilometroko ibilbidea izango zuen obra batentzat: 4.178 milioi euro. Hortik %40 EAEko gobernu autonomoak ordainduko zuen kupoaren bidez, 118 milioi euro funts europarretatik aterako zituzten eta beste 2.500 milioi euro Espainiako Gobernuak jarriko zituen. Obren amaiera data ugariren ondoren, gaur egun uste da ez dela martxan jarriko 2023 urtera arte, eta kostua 2.000 milioi euro igo da, 6.000 milioiraino. Egunotan jakin da AHTren Gasteizko lurrazpiko sarbidea 150 milioi euro gehiago kostako zaigula, hasieran uste zena baina %20 gehiago –denera 872,2 milioi euro–. Eta oraingoz ezezagunak zaizkigu Donostia eta Bilboko geltokien gainkostuak.

Madrilek eta Gasteizek sekula ez dute utzi AHT bezalako azpiegitura baten inguruan eztabaida demokratikoa egiterik, baina gizarteak beharra dauka jakiteko, euroz euro, nola eta zergatik hari diren herritarren zergak gastatzen obra faraonikoan. Konparaziorako datu bat: Eibarko ospitale berriak 28 milioi euroko kostua izan du. ●

ANALISIA



DANI BLANCO

Mariano Ferrer, kontzientzia kritikoa

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Hitz hauekin esplikatu zuen duela urte batzuk zer zen Mariano Ferrerren lanaren funtsa kazetari donostiarra asko estimatzen ez zuen politikari batek: "Bere buruari ezarri dio herriaren kontzientzia kritikoa izateko zeregina". Esaldiaz akordatu naiz bi arrazoirengatik: batetik, batzuetan arerioek deskalifikatzeko intentzioz egiten duten erretratua bihurtzen delako norbaitek jaso dezakeen laudoriorik politena; eta bestetik, argi uzten duelako kazetaritzak, letra larriz egiten denean behintzat, lagun bezainbeste kontrario ekartzen ahal dizkizula. Baina bidearen amaieran, Mariano Ferrerren ahotsa itzali denean, partidu honetako edo hartako gorbatekin izandako xextren gainetik ondare bat geratzen da, bizi osoa ofizioarekin konprometituta pasa duen norbaitena.

Nafarroako Unibertsitatean eta Madrilen ikasi ondoren, New Yorken amaitu zuen formazio akademikoa Ferrerrek. "AEBetan gizarte aurreratu batean bizi izan nintzen eta hedabideek boterearen aurrean exigentzia demokratikozko jarrera zuten. Hona iristean, berriz, aurkitu nuen irrati bat ezin zuena informatu", esplikatu zion Imanol Murua Uriari *Lo que dije y digo* liburuan. "Nire buruari esan nion modu batera edo bestera informatu egingo genuela". Eta 1971ko goiz batez mikrofono aurrean jarri zen, *El Diario Vasco* eta *La Voz de España* hartuta –ordu horretan ezin zen beste egunkaririk erosi– eguneko berriak irakurtzen hasteko, estilo pertsonal imitaezinean, albisteek zer dioten esplikatuz, baita kontatu ez dutena edo kontatu nahi izan ez dutena ere. Ia 35 urtez egin zuen, goizero-goizero.

Tartean *Egin* egunkariaren sorreran parte hartu eta zuzendari izan zen, egunkaria hartzen joan zen ildoarekin desados, eta 1977an ETAren atentatu bat kritikatuz idatzi zuen editorial bat medio, proiektua utzi zuen arte. 39 urterekin Herri Irratian zen berriz eta geroztik mikrofonotik bezainbeste hedatu zen Ferrerren ahotsa beste bideetatik: unibertsitatean, telebistan, Euskal Herriko hainbat hedabidetan jaso dituzte haren ekarpenak. Ahotsa, aurpegia eta luma jarri zituen Elkarriren 1994ko Bake Konferentzian edo 18/98 makroepaiketaren aurkako plataforman.

Banderarik gabe egin zuen, bandarik gabe, une bakoitzean kontzientziak diktatzen zionaren alboan jarriz. Jarrera etiko horrek ez dauka iraungitze-datarik, edozein modaren gainetik dago; gaurko eta biharko kazetarioi utzitako eredua da. ●

ELKARTASUNA, TAFALLAKO HONDAMENDITIK ATERATAKO IKASGAIRIK EDERRENA

HERRITARRAK AUZOLANEAN. Ehunka lagun aritu dira Tafallan uholdeek sortutako kalte handiei aurre egiten, besteak beste, garbiketa lanetan. Espainiako Gobernuaren esku dago orain hondamendi gune izendatzea, baina bitartean herritarrek Tafallako Udalaren deiari erantzun bikaina eman diote. Hori da lanean ibili direnen artean azpimarratu dutena: "Elkartasuna izan da katastrofe honetatik atera dugun politena, hunkigarria izan da".

INDARKERIA MATXISTA

100

emakume hil dituzte 2003tik gaurdaino, *Berria*-k egin berri duen inkesta baten arabera. Azterketa horrek agerian uzten du proportzioan Lapurdin gertatzen dela hilketa gehien.

%33 erasotzaile diren gizonen herenak bere buruaz beste egin duela.

Sexu erasoak Beasain, Iruñea, Santurtzi eta Sestaon

"Erasoen aurrean erantzun kolektiboa antolatu" lelopean arbuiatu dute Beasaingo (Gipuzkoa) bizilagunek asteburuan izandako bortxaketa. Ehunka pertsona bildu ziren Bideluze plazan, eta Aitor Aldasoro alkateak bortxaketa gaitzetsi du. Biktimak eta familiak "behar duten edozer" emateko udalaren prestutasuna adierazi du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako prentsa-oharrean indarkeria matxista lehen mailako arazoa dela adierazi du: "Indarkeria matxista lehen mailako arazoa da, botere harremanetatik garatua, eta bere helburua emakumeen azpiraketa mantentzea da".

IRUÑEAN ETA SANTURTZIN

Iruñean (Nafarroa) eta Santurtzin (Bizkaia) ere bertako jaietan izandako sexu erasoak salatzeko elkarretaratzeak egin dituzte. Euskal Herriko hiriburuan hilaren 6an jazotako erasoa salatu dute, eta Santurtzin, berriz, larunbat gauean 19 urteko gizon batek adin bereko emakume bati egindako ukituak. Santurtziko erasotzailea Portugaleten atxilotu zuten gau berean.

SESTAON ATXILOKETA

Hilaren 13an emakume batek bere bikotekidearen erasoa salatu zuen: lepotik eutsi, bultza eta laban batekin mehatxatu zuela. Egun berean atxilotu zuen gizona Ertzaintzak, eta gaur goizean epailearen aurrera eraman dute, genero-indarkeria delitua egotzita.

KOTE CABEZUDO. Bere kontrako auzi nagusiaren instrukzioa itxi egin du Donostiako 4. Instrukzio Epaitegiak. Julián García Marcos epaileak ikertu du kasua, eta 47 delitu leporatu dizkio. Epaiketarako data ez da iragarri oraindik.

BEATRIZ SEVER EGAÑA adin txikiko transexualen Naizen elkarteko bozeramaileak emango du Bilboko jaien hasierako pregoia eta Otxarkoaga auzoko Pa... Ya! konpartsako Itxasne Nuñez izango da txupinera.

JOSE IGNACIO MUNILLAK predikua egin zuen Elkanoren alde Getarian. Koroak eta balore kristauek kolonizazioaren "abusuak" "mugatu" zituztela defendatu du. Horrek azalduko luke kolonizazioak sortutako "mestizajea eta topaketaren kultura".

TEFFA: ETIOPIAKO LABORE XUMEA SUPER-ELIKAGAI BIHURTU DUTE, PATENTATU ETA OSTU ONDOREN

Andeetako kinoaren moda bareturik, Etiopia eta Eritreatik heldu den teff labore txikia da Ipar aberatsean azkena zabaldu den super-elikagaia. Gainerako zerealek baino kaltzio eta mineral gehiago ei daramatzana, glutenik gabea, burdina eta proteina asko dauzkana, fibra kopuru handia... Horra etiopiarrek *injera* taloa egiteko darabilten teff xumea kirolarien eta osasunaz obsesionatutako burges-txikien gutizia bihurtua. Agro-industriak harrapatuta, noski.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Patenteen aferen jarraipena egiten duen *Kluwer Patent* blogak berrikitan zabaldu du: Holandako auzitegi batek baliogabetzat utzi ditu teffa prozesatzeko bi patente holandar. Teffa da labore bat milaka urtez Etiopian erabili dutena egiteko *injera* izeneko taloa, beren otordu gehienen laguntzailea. Etiopiako Gobernuak pozik hartu du ebazpena. Patenteok haserre handia piztua zuten Etiopian, non tefa ondare nazionalaren osagaitzat baitaukate.

Euskarazko Wikipedian irakur daitekeenez, tefa edo teffa (*Eragrostis tef*), Afrikako ipar-ekialdeko etiopiar mendigunean sortutako urteroko landare belarkara da. Nutrizioaren aldetik ezaugarri interesgarriak dauzka: zuntz dietetiko eta burdina asko dauka eta proteinaz eta kaltzioz horniturik dago. Artatxikia eta kinoa bezala egosten da, baina hazia txikiagoa da. Labore garrantzitsua da Etiopian eta Eritrean –injera izeneko janariaren osagaia da–, eta Indian eta Australian ere erabiltzen da.

"*Teffa ote da super-elikagai berria?*" galdetzen zuen 2016an *New York Times* egunkariak: "Teffa aspalditik izan da lasterketa luzeetako korrikalari etiopiar mitikoen janaria, hala nola Olinpiar Jokoetan urrea irabazi eta munduko marka ezarri zuen Haile Gebrselassierena, zeinak baitzioen teffa zela etiopiarren arrakastaren sekretua. Baina orain teffa ari da bihurtzen modako elikagai amerikar askoren artean. Iraupen luzekoetan ari diren atletek alea maite dute mineral asko dauzkalako. Glutenarekin ezin dutenek daukate gariaren alternatibatzat. Labore honen salmentak goraka ari dira urtez urte AEBetan: 2014an %58ko igoera Packaged Facts merkatu ikerketa konpainiaren arabera".

2005ean Etiopiako Biodibertsitaterako Institutuaren eta Holandako Health and Performance Food International (HPFI) konpainiaren artean sinatutako tratua, '*eredu pilotu*' edo prototipotzat nabarmendu zuen Biodibertsitaterako Nazioarteko Biltzarrak 2008an. Etiopiaren altxor genetiko bat mundu mailako negozio bilakatu behar omen zuen, konpainia pribatu baten eta estatu txiro baten arteko ituna oinarrituta etikan eta parekidetasunean.

Konpainiak orduan "*HPFIren negozio eredu solidarioa*" agirian azaldu zuen solidaritatezko negozio baten berri: "HPFI konpainia holandarra hasi zenean teffa Ipar Amerika eta Europako merkatuetan sartzen, ohartzen zen Etiopiako jendeen oniritziaz jokatu behar zuela. Konpainiarentzako inportantea zen mende luzez zereal basati hori erein, kontserbatu eta eraldatu zuen jendeak ere jasotzea horrek orain munduan ematen zituen etekinak".

Konpainiak zioen 3 milioi euro eta lau urteko ikerketa lanak inbertitu zituela, 375 teff barietateren artean Europako klima eta lurzoruetarako 3 egokienak aurkitu eta AEB eta Europan promozio lan handia egin zuela teffez egindako produktuak zabaltzeko, tartean opilak eta garagardoa. "Hitzarmenean adostu bezala, konpainiaren etekinen %5 ematen dizkio lanpostu jasangarriak eta baserritarrak sustatzeko HPFIk eta Etiopiako Gobernuak sortutako funts bati. Horrez gain, Etiopiak jasotzen du teff hazien salmentaren etekinen %30eko royalty bat eta 10 euro HPFIk teffez ereindako hektareako".

SUKALDARITZA-KOLONIALISMOA

Hori idatzi zuten 2008an, baina 2012rako agerian geratuko zen itun polita hazitik zetorrela usteldua. Norvegiatik munduko energia eta baliabideen legedia eta gobernantzaren behatokia den Fridtjof Nansen Institute fundazioak ikertu zuen eskandalua eta afera gero laburbildu du, Edna Mohamedek *The New Internationalist* aldizkariaren ekaineko zenbakian: "*How a corporation patented Ethiopia's most common staple*" [Korporazio batek honela patentatu zuen Etiopiako oinarrizko elikagai zabalduena].

2005eko itun hartan Etiopiak eta HPFIk adostutako merkaturatze planaren babesean, Jans Roojsen agronomo holandarrak 2003an eskatu eta 2007an lortu zuen teffa merkaturatu, saldu edo inportatzeko eskubidea ematen zion patentea. Alegia, engoitik HPFIrena zela milaka urtez Etiopia eta Eritreako laborari eta abeltzainek landua zuten teffaren jabegoa.

Baina, teffa gero eta ezagunagoa zen arren, HPFIk ez zituen lortu esperota-

EGUNEROKO OPILA
EGITEKO ERABILTZEN DUTE TEFFA (*ERAGROSTIS TEF*) ETIOPIAN.

ko etekinak eta kiebra jo zuen 2009an. Itunak iraun zuen bost urteetan Etiopiak denetara 4.000 euro jaso zituen, besterik ez. HPFIk bazuen, ordea, likidatzerakoan ondo gordetako altxor bat –teffaren patentea– eta enpresaren fundatzaile Jans Roojsenek bereganatu zuen 60.000 euro pagatuta.

Geroago beste konpainia holandar bat, Bakels, hasi zen teffezko produktuak saltzen eta Roojsenek auzitara eraman zuen, patente eskubideak paga ziezazkiola eskatuz. Oso tarteka bada ere justiziak bai baitaki poetikoa izaten, Roojsenen erreklamaziotik abiatuta bere kontra ebatzi du Hagako epaitegiak eta honen patentea baliogabetu, errebotez etiopiarrei bidea libre utziz teffarekin nahi dutena egin dezaten. Hori bai, oraindik Roojsenen patenteak baliagarri dirau Belgika, Italia, Alemania, Austria eta Britainia Handian.

Fridtjof Nansen Institutek salatu duenez, teffarena *bio-pirateria* kasu nabarmena da, lapurretak ekarri baitu Etiopiak ezin erabili izatea bere baliabide genetikoak Europako zenbait herrialdetan. Joan den maiatzean Etiopiako fiskal nagusiak iragarri zuen Roojsenen kontrako salaketa ari zirela osatzen, lapurretagatik epaitu dezaten. Baina bitartean, ez dago batere garbi enpresa etiopiarrek alea saldu ote dezaketen patenteak bizirik dirauen herrialdeetan ala arriskatzen duten salaketa bat, Bakels konpainiak eduki duena bezalakoa. Behin patentea lortuta, jabego publikokoa zena pribatizatuta geratu da.

Gaiak erakusten du sukaldaritzazko kolonialismoak [*culinary colonialism*] nola funtzionatzen duen ere. Lisa Heldke filosofoak formulatu omen zuen kontzeptua, adierazteko kolonialismoak nola eraldatu zituen sukaldatzeko ohiturak. Jokabide kolonialista horrek dakar, hasteko, menpeko herrialdeetako janariei itxura edo izena bera ere berritzea [*rebrand*] mendebalde aberatseko kontsumitzaileentzako erakargarri egiteko, irudi berrian jatorrizkoarekiko lotura txiki bat mantenduz justu produktuaren exotikotasuna nabarmentzeko adina, baina azken finean jatorrizko jendarte indigenekiko edozein kulturazko lotura ezabatuz.

Teffaren afera, dio Edna Mohamedek, nekazaritzan eta oro har naturan korporazioak egiten ari diren desjabetze erraldoiaren adierazgarri da: "Landareen DNAren %75 konpainia pribatuen jabetzan dago, erdia 14 multinazionalen esku". Patentez ongi zigilatuta. ●

Idoia Torregarai

KAZETARIA EGUNEZ ETA UMOREGILEA GAUEZ, EDOTA ALDERANTZIZ

“BERTO ROMERO HAIN DA ITSUSIA, EZEN HARRIKA HILKO LUKETE EMAKUMEA BALITZ”

Idoia Torregarai UEUko komunikazio arduraduna da. 23 urte darama hamaika ikastaro eta ekimenen inguruko informazioa lau haizetara zabaltzen. Azken urteetan, aldiz, Idoia umoregilea ari gara ikusten han-hemenka. Emakumeok ez gaude ohituta gure gorputzaz, gure hilekoaz edo amatasunaz barre egiten eta are gutxiago jendaurrean. Hori konpontzera heldu da lur orotariko eta erabilera anitzeko kazetaria.

REYES ILINTXETA DANI BLANCO

Umoreak zer toki du zure bizitzan?

Nire pasioa da. Gure etxean oso garrantzitsua izan da beti. Aita eta amarengandik jaso eta modu kontzientean nerabezaroan lantzen hasi nintzen. Argi neukan kuadrillako ederra ez nintzela inoiz izango, beraz graziosoa izatea zen nirea, horrek beti funtzionatu izan didalako. 2012an bloga sortu nuen, Barretartia, umorea, euskara eta nire paranoiak plazaratzeko. Ondoren hitzaldiak, formakuntza saioak eta barreterapia ikastaroak eman nituen. Euskadi Irratian ere kolaboratzen hasi nintzen eta ikaragarri gustatzen zaidala konturatu nintzen.

Eta iaztik antzerkilari ere bai?

Bai. Jendaurrean zerbait egitea falta zitzaidan. Mirari Martiarena adiskide eta lankide izandakoak eta biok antolatu genuen *Bakean dagoena, bakean utzi* bakarrizketa saioa.

Euskararen egunerako prestatu eta Usurbilen estreinatu ondoren, Bertsozale Elkarteko Lanku enpresarengana jo eta eskaini genien gure ideia. Itsu-itsuan esan zuten baietz eta dagoeneko laurogeita gehiago emanaldi eskaini ditugu. Gozamena da, baina gogorra ere bai, saio bakoitza zerotik hastea baita. Gure buruaz barre egin eta jendea identifikatuta senti dadila nahi dugu. Horretarako gai tabu eta ezkutuak ateratzen ditugu modu katartikoz.

Adibidez?

Hilekoaren gaia, edo gorputza ukitzea proposatzen diogu jendeari… (nork berea, e!). Gizonak horretara ohituago daude. Zenbat aldiz ikusi ditugu beren hankartea ukitzen gure aurrean? Baina emakumeok egiten dugunean arraroa egiten zaigu.

Konturatu gara emakumeok ez diogula geure buruari baimena ematen geure buruaz barre egiteko. Kultura umoristiko handiagoa eduki beharko genuke. Euskaraz bada tradizioa umorea lan-

PUNTO DE
REUNION

Idoia Torregarai Martija

USURBIL, 1974

Formazioz kazetaria eta gidoilaria. Duela 23 urte UEUko komunikazio bulegoan hasi zen lanean eta 2000. urtetik bertako arduraduna da.

Umorezale gisa *Barretartia*, umoreari buruzko euskarazko blogaren sortzailea da. Pertsona, enpresa eta erakundeei umore zerbitzuak eskaintzen dizkie barreterapia saio, ikastaro eta hitzaldien bidez. Mirari Martiarenarekin *Bakean dagoena, bakean utzi* bakarrizketa estreinatu zuen iaz, generoa eta euskara ardatz hartuta, eta dagoeneko 100 bat emanaldi eskaini dituzte Euskal Herri osoan barna.

tzeko bai antzerkian, bai bertsolaritzan, baina gauza asko falta da oraindik.

Nola hartzen du jendeak ikuskizuna?

Izugarri ongi pasatzen dugun arren, aitortu behar dugu zuzenekoa polita bezain gogorra izan daitekeela. Zenbait tokitan irriberagoak dira beste batzuetan baino. Bizkaian tokatu zitzaigun behin denak serio-serio egotea, gu lur jota ez genekiela nola altxatu hura eta bukatutakoan jendea hurbildu zen eskerrak ematera, esanez inoiz ez zutela horrenbeste barrerik egin. Barrutik izango zen, bada! Bizkaiko edo Gipuzkoa sakoneko herri txiki batzuetan agian barre gutxiago egiten dute, nahiz eta ederki pasatu. Iruñean oso ongi pasa dugu etorri garen bi aldietan. Izan ere, inoiz izan dugun txalo zaparradarik luzeena Nafarroako Antzerki Eskolan izan zen, Irrizikloan.

Euskaldunok badugu umore propiorik?

Ez. Estiloan ez dut antzematen. Denetatik erabiltzen da, baina euskaraz. Euskara da gure bereizgarri bakarra, eta ikusleekin partekatzen ditugun erreferentziak, noski.

Euskaldunok serioak garela diote Espainian.

Hori tontakeria da. Topiko bat. Kike Amonarriz eta Uxoa Anduagaren ikerketetan azaltzen da nola XIX. mendean Europa osoan nazionalismoak hedatzen direnean, ezaugarri batzuk lotzen zaizkien komunitateei. Eraikuntza bat egiten da eta horren arabera estatuan euskaldunak langileak dira, katalanak zuhurrak, andaluziarrak graziosoak...

***Ocho apellidos vascos* bezalako filmetan berpizten diren topikoak?**

Hala da. Niri ez zait gustatzen. Nik absurdoa nahiago aukeran. Hala ere, umorea da eta hori ere zilegi, noski. Hori bai, halako klixeak onartzen badituzu, kontrako norabidekoak ere onartzeko prest egon behar duzu. Eta hori ez da askotan gertatzen. Horren adibidea da *Euskal-*

duna naiz telebista saioarekin atera zen zarata guztia. Botere harremana agerian geratu zen: espainiarrek umorea egin dezakete euskaldunekiko, baina guk beraiekiko eginez gero, zigorra.

Edozein gauzari buruz egin daiteke umorea?
Nik uste dut denak balio duela, baina bueltakoa jasotzeko prest egon behar duzu. Denetarako azala eduki behar duzu. Nik adierazpen askatasuna bezala tratatuko nuke umorea. Oso gutxitan moztuko nuke. Erantzuteko modua baduzu, zergatik ez?

***Manada*-ren bortxaketari buruz ere bai?**
Jendeak txiste matxistak egin ditzake eta nahi duen guztia, baina besteek esan behar diote horrek ez duela batere graziarik eta halakorik haiei ez bidaltzeko. Nik ez dut umore kaka debekatuko, baina ez dut erosiko. Debekatzea hitz potoloa da. Askatasuna moztea oso arriskutsua da umorea egiterakoan. Umore gaiztoa egongo da beti: umore zapaltzailea; ahula, emakumea, euskalduna... mindu nahi duena, baina ez da debekatu behar. Kultura umoristikoa zabaldu behar da, hainbat umore mota detektatzeko eta gaiztoak baztertzeko gaitasuna izateko.

Zergatik dago horren emakume umoregile gutxi?
Eremu publikoa, oro har, orain arte ia soilik gizonena izan delako. Emakume batek publikoki umorea egitea eta gainera umore transgresorea egitea, jauzi mortal hirukoitzaren parekoa da. Gainera, emakumea gizona baino askoz zorrotzago kritikatzen da. Larrutu egiten gaituzte, hasteko, gure irudiarengatik. Niri Berto Romero [umoregile kataluniarra] asko gustatzen zait, baina den itsusiarekin, harrika hilko lukete emakumea balitz. Guri berehala itsusia, potoloa... esaten digute. Eta horrek, gainera, nolabaiteko kontrako jarrera sortzen du: honek barre eginaraziko dit niri, bai zera! Txiste bera gizon batek kontatua edo emakume batek kontatua, ez da inola ere berdin hartzen.

Zer eginen zenuke gustura?
Zerbait telebistan. Ikusten dut erreferentziak falta direla. Zerbait ganberroa egingo nuke, esketxak ez, zerbait sinpleagoa, gai baten inguruan hitz egin adibidez, edo ikus-entzunezko interesgarri bat agian...

UEUn ezinbestekoa zara, baina beti bigarren planoan ikusten zaitugu.
Nik oso argi daukat: nire egitekoa da UEUk egiten duena ezagutzera ematea. Hasieratik argi izan dugu, oso erakunde txikia izanda, erreferentzialtasunak ezin ditugula biderkatu eta bozeramailea zuzendariak izan behar duela. Nik, gainera, nahiago dut bigarren planoan gelditu. Gustatzen zait.

Zenbat urte daramazu UEUn?
Udako ikastaroetan 23 urte. Laguntzaile hasi nintzen karrera bukatu gabe. 21 urterekin ezagutu nituen Larraona ikastetxean Iruñean egiten ziren ikastaroak eta bi urte aritu nintzen Pili Kaltzadaren laguntzaile, bera baitzen prentsa arduraduna. Pilik berehala ikusi zuen komunikazio lana aldatu beharra zegoela UEUn. Berarekin izugarri ikasi nuen.

> ***Gelditzen diren territorio libre gutxi horietako bat da UEU"***

Larraonara iritsi eta *friki* pila ezagutu nuen, batzuk informatikan adituak, besteak ez dakit zertan... eta segituan oso eroso sentitu nintzen. Lehenbiziko urtean nor eta Txillardegi [Jose Luis Alvarez Enparantza] elkarrizketatzeko aukera izan nuen! Ikaragarria! Unibertsitatea, euskara, komunitatea... eta dena Euskal Herri osora zabaltzeko nazio ikuspegiarekin bideratua. Segituan egin nuen bat proiektuarekin. Niretzat UEU eskola izan da, bai ofizioa ikasteko, bai lan etika bat eraikitzeko.

47 urte bete ditu UEUk. Zertan aldatu da urte hauetan?
Erakunde gisa handitzen joan da. Garai batean udan kontzentratzen zen lan gehiena, baina gaur egun dagoeneko urte guztian egiten du lan ikastaro eta ekimenetan. Ikasturte bakoitzean 2.000 pertsona inguru izaten ditugu.

Lantaldean hamalau pertsona gaude eta komunikazioan ni bakarrik urte osoan, eta hiru kide gehiago udan. Oso talde murritza da halako ekimen baterako, halere proiektuarekiko dugun atxikimenduak eta lan giroak bultzatzen gaitu hau dena aurrera eramaten.

Urte hauetan aldatu ez dena helburu nagusia da. Guk pertsonak formatu nahi ditugu, goi-mailan eta euskaraz. Asmo hau lortzearren ikastaroak, graduondokoak eta IkerGazte kongresua antolatzen ditugu. Gainera, urtean hamar bat liburu ematen ditugu argitara eta Inguma edo Artizarra datu baseak kudeatzen ditugu. UEU beti saiatu izan da topagune izaten aditu eta aritu euskaldunentzat. Herri autonomoa eta burujabea izan nahi badugu aditu eta profesional euskaldunak behar ditugu.

Eta komunikazio lana nola aldatu da?
Hasieran elkarrizketak egin eta dosierrak osatu ondoren faxez bidaltzen genituen komunikabideetara. 1996ra arte argazkiak ere errebelatu egiten genituen gela ilunean, dendara eramaten hasi arte. Pentsa zer-nolako aldaketak izan diren! Orain telefono mugikorrarekin kasik prentsa bulego osoa daukazu poltsikoan.

UEU POSATZEN

"Txikia izateak, ez formala izateak, komunikazio estilo lasaiago eta koloretsuagoa egitea ahalbidetzen digu. Ana Obregónek uda hasieran bainujantzian bere *posadoa* egiten duen bezala, gu ere UEUko kartelarekin kalera ateratzen gara argazki bitxiak eta txorakeriak egitera ikastaroak sustatzeko asmoz. Beste unibertsitateetan pentsaezina da".

EMAKUME TXINTXOAK

"Adin guztietako emakumeak identifikatzen dira gurekin [Mirari Martiarena eta berak egiten duten umore saioaz ari da] eta gizonak harrituta gelditzen dira. Beste aurreiritzi bat ere apurtu nahi dugu: emakumeok ezin dugula umorerik egin. Erakutsi zaigu formalak izaten, txintxoak, eta gu arau horiek apurtzera etorri gara".

Zabalkundeari dagokionez, gero eta pisu gehiago ematen diegu ikus-entzunezko edukiei eta sare sozialetan egiten den lanari. Hobekien funtzionatzen duten edukiak gure elkarrizketak dira, bai testuan baita bideoan ere, eta hauekin batera, minutua baino gutxiagoko ikus-entzunezkoak.

Zer izan zen Larraonako garaia UEUrentzat?

Oso garai garrantzitsua. UEU 1973an Iparraldean sortu eta lau urtera erabaki zuten ekitaldiak Hego Euskal Herrira ere ekarri behar zituztela, eta Iruñea hautatu zuten horretarako. 25 urtez UEU Larraona ikastetxean aritu zen, 2007ra arte.

Garai hartan Larraonako bi aste horiek oasi moduko bat ziren euskararentzat. Euskal Herri osoko jendea etortzen zen helduen udaleku antzeko horretara. Ikastera bai, baina euskaraz bizitzera ere hurbiltzen ziren. Arnasgune bat zen. Ikasi, jan eta parranda egiten genuen denok batera. Urrezko aroa 90eko hamarkadan izan zen. 1997an ia 1.000 pertsona pasa ziren Larraonatik. Egun batzuetarako etortzen zen jendea edo aste bat edo bitarako, eta hainbat ikastaro egiten zituzten. Askoz komunitarioagoa zen dena. Gerora, aldiz, 2000. urtetik aurrera, beste fase bat hasi zen: eskaintza zabaldu da, udako ikastaro gehiago eskaintzen dira beste unibertsitateetan ere, zorionez, eta ordutik aurrera ikusten da jendea gehiago etortzen dela ikastera, beraien curriculum pertsonal eta profesionala aberastera.

Malenkoniaz gogoratzen duzu?

Bai eta ez. Garapen hori gertatu da, azken finean, euskarak beste esparru batzuk irabazi dituelako, beraz alde horretatik positiboa da. Orain beste era batera aritzen gara, baina egungo ikastaroek mantentzen dute beren esentzia: esperimentazioa, metodo eta eduki berritzaileak, askatasunez ikasi eta irakasteko aukera...

Zergatik da desberdina unibertsitate hau?

Gelditzen diren territorio libre gutxi horietako bat delako. Hemen dena da komunitarioa eta nazio ikuspegitik enfokatua. Ikasleek 100 bat ikastaro proposamen egiten dizkigute urtero eta horietatik 30 bat aukeratu eta prestatzen ditugu. Horrela, ohiko edukiez gain, beste toki batzuetan ikasten ez dena hemen aurki daiteke. Gogora dezagun bertsolaritza edo gastronomia hemen landu zirela lehen aldiz. Udako ikastaroetan 600 bat parte-hartzaile izaten ditugu, eta gaur egun dagoen eskaintza zabala kontuan hartuta, oso ongi dago.

Gureak oso talde txikiak dira eta horren ondorioz sortzen den elkarlana eta giro goxoa bilatzen ditu jende askok orain UEUn. Gureak ez dira eskola magistralak. Otorduak ere denok elkarrekin egiteko ohitura mantentzen dugu.

Zer moduz joan dira aldaketaren urteak Nafarroan UEUrentzat?

Urte hauetan aurrerabide handia egin du UEUk Nafarroan, bereziki Hezkuntza Departamentuarekin urte osoan izandako elkarlanarengatik.

Larraonako garaiaren ondoren urte zailak izan ditugu. Zailtasun ekonomikoengatik Iruñeko bulegoa itxi behar izan genuen. Hala eta guztiz ere, gobernu aldaketa baino lehenago, apustu argia egin genuen hemengo eskaintza urte osoan zabaltze aldera eta berriz zabaldu genuen bulegoa. Bide berri hori indartua izan da aldaketari esker. Hezkuntza Departamenduarekin sinatu genuen hitzarmen bat hezkuntzarekin lotutako nafar ikasleei formakuntza emateko. Lau urte hauetan emaitzak oso onak izan dira. Parte-hartze horren handia izanda, argi ikusten da goi-mailako formazioa euskaraz jasotzeko beharra dagoela gaur egun Nafarroan. Hemendik aurrera zer? Ezin jakin, baina guk hemen jarraitzeko bokazioa dugu, beti izan dugun bezala, garai on eta okerretan ere.

Gazte askorentzat UEU ezagutzeko aukera izan al da?

Bai, zalantzarik gabe. Hemen, Nafarroan, ia ikusezin izatetik argitara pasa gara eta orain euskal komunitatearen atal batentzat erreferenteak gara baita Nafarroan ere. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu
SIGACUS
✆ 943 453 588 · www.sigacus.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

G7a Biarritzen

MIKEL ZURBANO
EHU-KO IRAKASLEA

Munduko ekonomian pisu handia duten zazpi herrialdek (Alemania, Erresuma Batua, Frantzia, Italia, AEB, Kanada eta Japonia) eta Europako Batzordeak abuztuaren 24tik 26ra G7 taldearen 45. Goi-bilera burutuko dute Miarritzen. Azken hamarkadetan G7a munduko ekonomia kudeatu duen foroa da, Nazioarteko Diru Funtsarekin, Munduko Merkataritza Erakundearekin eta Munduko Bankuarekin orpoz orpo.

G7ak ez du nazioarteko erakunde baten zilegitasunik. Baina ez du horren beharrik, izan ere, bere partaideen ahalmen ekonomikoa dela eta, hartutako erabakiak indarrean jarri ohi dira. Beren enpresa handienen interes ekonomikoak babesten ahalegintzen den aberatsen elkartea da eta horretarako ez du inoren baimenik behar. Interes partikular horien defentsak krisia, desberdintasunak eta planetaren hondamendia sortarazten ditu. Horrez gain, taldearen izaerak Nazio Batuen Erakundearen zilegitasuna zalantzan jartzen du. Beraz, munduko gobernantzarako ez du onik ekartzen.

Gailur hau AEBetako –eta beste herri batzuen– protekzionismo eta aldebakarreko politikek, desberdintasunek, klima aldaketak eta ekonomiaren digitalizazioak baldintzatuko dute. Erronka horiei aurre egiteko ohiko errezeta liberalak mahai gainean jarriko dira behin eta berriro, arazo larriok gainditzeko beharrezkoa den eraldaketa ekonomiko eta soziala oztopatu asmoz.

> G7 taldearen izaerak Nazio Batuen Erakundearen zilegitasuna zalantzan jartzen du. Beraz, munduko gobernantzarako ez du onik ekartzen

Macronek gailur honetarako ezarritako bost lehentasunak agenda politiko eta ekonomikoan giltzarriak dira: desberdintasunak borrokatzea, batik bat genero eta ingurumenarenak; bidezko merkataritza bultzatzea; bakearen ekinbidea indartzea eta digitalizazioak eta adimen artifizialaren aukerak probestea. Nolanahi ere, erronka horien garapenerako urrats eraginkorrak hartzetik urrun egongo gara abuztuaren 27an. Ekainean Osakan burutu zen G20koen bilerako emaitza (Trump guztien aurka) errepikatzeko arriskua dago. Komunikabideek Trumpen protekzionismoaren aldeko jarrera salatuko dute eta, aldiz, multilateralismoaren aldeko gainerakoen jarrera txalotu. Baina argazki horrek ezkutuan uzten du hamarkadetan indarrean egon den multilateralismo liberalaren ardura, hain zuzen, eskuin mutur protekzionistaren, Brexitaren eta aldaketa klimatikoaren bulkadan.

Benetako munduko gobernantza multilateralaren defentsa ez dagokio zilegitasun demokratikorik gabeko elkarte pribatu bati. Multilateralismoaren aldeko zilegitasunezko esparru bakarra Nazio Batuen Erakunde modernizatu eta demokratizatuak ordezkatzen du. Eta bide horretan munduko populazioaren %10 baino biltzen ez duen G7 bezalako formula traba da lagungarri baino.

Bestalde, Trumpen protekzionismoa salatuz Macronek, Merkelek edo Trudeauk nazioarteko merkataritzaren ordenu desparekoaren alde egiten dute. Izan ere, gaurdaino iritsi den merkataritza *libreak* eragin oso kaltegarriak izan ditu ingurumenean, enpleguan, errenta desberdintasunetan edota tokiko garapenean. Eta kalte horien uhinaren gainean zutitu dira Brexita, Trump, Bolsonaro eta abar.

Hots, mendebaldeko agintari liberalek ez diote inongo erantzun eraginkorrik ematen globalizazioak sortutako hondamendi ekologiko eta sozialei. Kalte hauek onartzeaz gain ezinbestekoa da erregulazio neurri indartsuak eta zuzenak ezartzea mende honetako erronkei erantzun egokiak emateko, batez ere enpleguaren, desberdintasunen eta klima aldaketaren arloan. Bestelako gobernantza demokratikoa eta sozialak erantzun komun eta efektiboak jarri beharko ditu indarrean munduak bidezko etorkizuna izango badu. ●

Bidaiaren bukaerak

PAULA ESTÉVEZ

IRATI ELORRIETA
IDAZLEA

Errromes joan gara fikziozko memorialen egarriz. Historiaren errepresentazioak gure bidaiaren helmugan; Paris GPS-an. Christian Boltanski edo Anselm Kiefer-en obra monumental baten aurrean gaudela iruditu zaigu, gorputzean sentitu baitugu espazioaren hutsunea, handitasuna, eta buruan. Buruan zer? Buruan tiroak, galderak, eutsi ezineko metaforak norabide ugaritan, guztia ulertu nahian: Zer demonio ibili da hemen dena desegiten? Zeintzuk dira gure demonioak? Gure(aren) desegileak? Eta guk, ba al dugu errurik? Bai, erruaren zalantza ere sortu zaigu, norberarena, kolektibitatearena, seguruenez, instalazio erraldoi honen tenplu izaera dela eta.

Harrizko zutabeak daude hutsune leizetsuari eusten, lorez apainduak, eta lore gehiago, beirazkoak, argizkoak, mundua hona barrura, ilunbe gotikora, iragazten. Ehundaka urteko kaiolan kiskalitako paisaiaren azala laztantzen du argi horrek. Zibilizazioaren errautsak, gerren hondakinak hedatzen dira lurrean. Eta hara non, gizakia: Babesik eman ezin duen aldamio kaskar batera igota, kasko gorridun eta lan-jantzi zuridun langile anonimoa, aurpegia maskaz estalirik, sarraskiari so. Bere gorputzaren hizkera edonorentzat ulertzeko modukoa da, eta apala. Honela dio: "Eta orain, zer?". Horixe da debatea, izan behar luke, orain zer, eta arteak, arteak maiuskulaz, ikusgarri, bizigarri egiten ditu garaiko debate handiak.

Asmatuko zuen baten batek, aurrean dugun instalazioa, Parisen, barrikadena izandako hirian, oraingo honetan, ez dela memoria fikzionatuen eszenaratzea. Zerogarren kilometroan kokatuta, arnas egiten duen sinboloa dela *Notre Dame* hau, hainbeste sutatik salbu geratu zen horren hondakin erreak ezkutatzen (erakusten) dituela sabelean. Badakizue robotak soilik sar daitezkela katedraleko alde batzuetara?

Ez dut Macronen txioekin lotutako negarrik egin nahi –"gaur gauean triste nago gure zati bat erretzen ikustean"–. Ez da ikono nazionala (Napoleon urrezko erledun kapa inperiala jantzita bere burua koroatzen ikusi zuena) interesatzen zaidana. Mitoak bai, mitoak ulertu ezin den mundu bat ulertzen saiatzeko kontakizunak dira. Victor Hugori erdiko erroseta ziklope baten begia iruditu zitzaion ilunabarrean, eta gauean, bi buruko esfingea ikusi zuen hiriaren bihotzean makurtuta. Eta politika. Politika bazterrak nahasten (kakazten) hasten den unea da kontakizunaren klimaxa.

Asuntoa bere egin du Macronek. Lehen baino ederragoa berreraiki nahi du eta Eliseoak lege berriak proposatu ditu; ez soilik hirigintza eta monumentuen kontserbazioaren inguruko araudiak anulatzeko, baita ingurugiro eta lan baldintzen ingurukoak saihesteko ere. Katedralaren identitateak –zaharra versus modernoa– liskarra sortu du eta beste joko-zelaietan bezala, honetan ere, trukoa da alternatiba bakarra dagoela aurkeztea: edo Macronen alde edo Le Penen bandoan. Horrelakoetara ohitzen ari gara, ia sinetsi arte. "Edo kaosa edo ni" esaten duena susmagarri egin beharko litzaiguke, bere interesetan sinplifikatzen ari delako, gainontzeko diskurtso posibleak isilarazten dituelako, debateei eta prozesuei lekurik uzten ez dielako.

Ez dezagun ahaztu bai kontakizunak, bai bidaiak bukaera irekikoak izan daitezkela eta guk erabakitzen dugula norantza. Erabakien araberakoak ziren bukaerak "bilatu zure abentura" saileko liburuetan: "Nor zaren esan nahi badiozu, jo 250. orrialdera. Izen faltsua esan nahi badiozu, jo 271. orrialdera. Erantzun gabe irteten saiatu nahi baduzu, jo 301. orrialdera". Errealitatea ere, gaixo ez badago, ez da polo bikoa. ●

Kospeiak

ENEKO GORRI
EUSKARA TEKNIKARIA

Bederatzi kilometroko distantzia daukat etxetik bulegora. Baina distantzia labur horretan, negutik honat bost obra publikorekin egin dut topo. Hondartzarako errepidea berritu, akanpaleku aitzineko espaloia handitu, oinezkoen zirkuitua inauguratu, herriko plaza itxuraldatu, merkataritza zonalde atarian aparkalekua gehitu...

Orain aldiz, bildu dira obra-panelak eta pala mekanikoak. Polit-polit jarri dira bide bazterrak, landatu dira loreak, berriz tindatu dira paretak. Dena prest, Lapurdi kostaldera bakantzetara etorriko diren udatiarrentzat. Bi hilabetez, bi milioi turista metatutako dira 30 km luzerako lur zati hertsi batean. Auto-metatzeak bideetan, oinezkoen karrikak saturatuak, inflazioak ostatuen prezioetan, folklorizazioa ikuskizun bizietan... Urtero 5,3 milioi turista datoz 300.000 biztanleko lurralde batera. 2.300 enpresa eta 9.100 langile "turismoaz bizi" direla saltzen digute instituzioetatik.

Gordinki pairatzen ditugu gaur duela 50 urte Paristik diseinatutako turistifikazio politikaren emaitzak. Alta, munduko txoko desberdinetan masa -turismoaren desmasiak salatzen diren garaiotan, 80-90eko hamarkadetara itzuli behar dugu horren kritika zorrotza entzuteko gurean. Larriago, uda bukaeran izanen den G7aren kontrako argumentuen artean, hautetsi abertzale batzuk sasoi turistikoan izanen duen eraginaz kezkatu dira berriki.

Ez ote dira biak txanpon beraren bi aldeak? "Euskal Herriari mundu osoko ospea" hitzematen diotenek, ez ote dute oporleku baten marka mundu osoko merkatuan balioztatzea anbizio? Berezko lurralde izan aitzin, Ipar Euskal Herria promozionatu beharreko helmuga bilakatu da agintari batzuentzat. Lurralde marketinak politika publikoei gaina hartu die.

Munduko kontinente frangotan bidaiatzeko xantza izan dut. Nire inkoherentziez kontziente, badakit bidaiatze soilarekin lurralde horien akulturazioan hartu dudala parte. Badakit ere borroka sozialen ondorio direla opor sarituak eta bidaiatzeko aukerak. Turistak *kospei* deitzea, frantsesezko *congés payé*-tik dator, demokratizazio baten oinordetza.

Baina badakit ere ikusi beharrekoen zerrendetatik eta *selfie*-tatik harago, beste turismo bat posible dela. Gure herriak badu zer transmititu, desitxuratu gabe. Ikastolako guraso berria, herrira bizitzera etorri den familia, Baionatik pasatzen den etorkina edo zazpi egun Euskal Herrian gaindi ibiliko den turistarentzat, badugu inklusio eredu bat kolektiboki asmatzeko beharra. ●

Banderak

LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA

Banderak trapuak besterik ez dira", aldarrikatzen dute munduko hiritarrek, inongoak ez, eta toki guztietakoak direnek. Bitxia da, baina halakoak beti izaten dira estatua daukaten banderapekoak.

Gurean ere zabaldu da jarrera hori sektore independentista batzuetan. Ikurrina alboratu dugu, modernoagoak garelakoan, bandera horri zaharkitu usaina hartzen zaiolako, instituzionalizatu egin delako EAEn, eta Ipar Euskal Herrian ikurrina produktu turistiko bihurtu delako, gainera.

Egia da gurutzebikoa Sabino Aranak diseinatu zuena, eta berak sortutako ia guztiari itxura zahitsua hartzen diogula. Era berean, ezin dugu ahaztu sektore espainiarrek etenbarik errepikatzen dutela bandera asmatua dela, beste guztiak zuhaitz batetik irten izan balira bezala!

Argi dago bandera bat behar dugula, guk muzin egin arren, estatu guztiek tinko eusten dietelako eurenei. Gurea ikurrina izan behar den? Baiezkoan nago. Artzain Onaren katedraleko eskalatzaileak (eta beste batzuek) hartutako arriskua gogoan eta bihotzean (aita nuen) izateaz gain, oraindik ere Iruñean ikur hori askatasun iturri delako. ●

Zorteko dago EH Bildu Nafarroan

MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Lerrook idaztean, Nafarroako lauko berriak akordio programatikoa hitzartu berri du. Berria da laukoa, PSN sartu eta EH Bildu aterako delako. Bi-biak batera etorri dira, gainera: sozialistek betoa jarri diete Bildukoei, haiekin berba ere ez dutela egingo ziurtatu baitute *orbe* eta, batez ere, *urbi.*

Sozialistek pentsatuko zuten, seguruenera, bazterketa absurdu horrek kalte egingo ziola ezker abertzaleari. Ez horixe. Kontrakoa: mesede galanta egin die.

Atera kontuak: betoa jarri izan ez baliote, uneotan ezker independentista 155eko alderdi sozialistarekin gobernu-ardurak negoziatzen ariko litzateke. Politika neoliberalak Hego Euskal Herrira ekarri eta inposatu dituen alderdi sozialdemokrata izango zuen lehendakari. EH Bilduren koaliziokide den ERCko buruzagiak preso eta eskubide politiko barik dauzkan alderdi sozialistaren ordezkariekin jardungo luke beharrean. Dispertsioarenarekin. Eta abar.

Gauzak txarto ateraz gero, negoziatu bakarrik ez, akordioa ere adostuko luke-

Sozialistek pentsatuko zuten, seguruenera, bazterketa absurdu horrek kalte egingo ziola ezker abertzaleari. Ez horixe. Kontrakoa: mesede galanta egin die

te PSNk eta EH Bilduk, eta Maria Chivite izango litzateke Nafarroako presidente, hurrengo lau urteetarako. Egonkortasuna ziurtatze aldera, ezkerreko alderdi biek (itunaren ostean horrela definitu beharko genituzke, ezta?) hainbat adostasun programatiko, zenbait desadostasun tasatu... eta aurrekontuak negoziatzeko eta hitzartzeko konpromisoa sinatuko lituzkete. Imajina dezakezue desastre handiagorik? Marko neoliberala onartuta jardungo luke Nafarroan ezker abertzaleak. Murrizketak ezabatzeko ahaleginean barik, murrizketok gutxitzeko lanean buru-belarri sartuta ariko litzateke lanean, zer eta Espainiako alderdi sozialistarekin! Eta denok dakigu sozialistekin ez dela posible, argi baitago "benetako hiruko bat dagoela, EAJk, PSEk eta PPk osatua; politika neoliberaletan eta murrizketa sozialetan bat etortzeaz gainera, haiek hitzartu" egiten dituztenak. Hiru horiekin, jakina, "ezinezkoa da aurrekontu sozialak izatea gastu-araua oinarritzat hartuta. Ezkerrak marko hau onartuz gero, murrizketen markoa ontzat ematen du, eta negoziatuko duen bakarra izango da zenbateko murrizketa egiten den".

Ez. Askoz hobeto dago EH Bildu Nafarroan ezer negoziatzeko aukera barik. Horrela ez da markoaren barruan sartuko: egia da murrizketak ez dituela leunduko, baina ez ditu politika neoliberal eta herrien eskubideen kontrakoak babestuko. Aukera osoa izango du, pedagogia egin eta bere proposamenak lasai azaltzeko.

"Jali da garbia, ta ELAk eskaini dio krabelin gorria". ●

Alberdi
EUSKAL ARTISAUTZA
OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK
ESKAERAK
azoka.argia.eus
✆ 943 371 545

LANDA EREMUAK BIZTANLEAK GALTZEN ARI DIRA

LURRALDEA OREKATZEKO ADOSTASUN SOZIOPOLITIKO BERRIAK ERAIKI BEHAR DIRA

Azken 50 urteetan nabarmen hazi da inguru metropolizatu eta landaguneen arteko desoreka biztanleriari dagokionez, Euskal Herrian ere bai. Hainbat eskualderen indize demografiko nagusiak negatiboak dira. Landa eta mendi guneak despopulatzen ari dira: hala Zuberoa-Nafarroa Beherea nola Nafarroa Garaiko Erribera, baita Arabako hainbat eskualde ere. Zergatik gorde oreka? Zer egin? Herri erronka horren eginkizunak nola banatu? Gaindegiak (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia) udalerrien indize demografikoak eguneratu ditu. Imanol Esnaolaren eskutik bilatu dugu egoeraren azalpena. Unai Fernandez de Betoñoren eta Isabel Elizalderen aburuak ere jaso ditugu.

MIKEL ASURMENDI

Gaur egungo Euskal Herriaren geografia sozioekonomikoa, II. Mundu Gerraren ostean finkatu zen ekonomiaren ondorioa da. Ekonomia eredu hartan hiriak industria eta zerbitzu-eremutzat finkatu ziren, lurraldean ongi bereiziz egitura industrialari lotutako eremuak eta lotu gabekoak. Edonola ere, ordurako industriak bazeukan hedapen zabala lurraldean, bailaraz bailara, batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan.

XXI. mendera etorriz, 2008ko krisiaren aurretiko hazkunde ekonomikoa handia izan zen. Mugikortasun pautak aldatu egin ziren: ibilgailu pribatuan oinarritutako mugikortasunak indar handia hartu zuen, eta eraikuntza jarduera indartsua lagun, landa eremu zabal batek metropolietako biztanleria bereganatu zuen. Landa eremuko herri horiek lo-hiri izaera hartu zuten. Bilboko metropolitik Plentzia-Mungia aldera desplazatutako biztanleriaren kasuan antzematen da hori, esaterako.

Indarrean zegoen eredu zaharraren –ekonomia industrialaren ingurukoa, metropolizatze maila altu batekin– eten moduko bat gertatu zen. Geroztik, gune industrial gutxiago eta hiriguneetan kontzentratuago dago, harik eta bizileku aldaketa premiazko gertatzeraino askoren ibilbide profesionalean. Ordura arte, euskal lurraldeak bazuen oreka zaintzeko hainbat baliabide. 2008az geroztik, lo-hiri fenomenologiatik kanpo geratu ziren eremu periferikoen hustuketa azeleratu zen. Metropolitik kanpoko eremuek irauteko zeuzkaten zailtasunak azkartu ziren, besteak beste, jarduera ekonomikoen galerarekin edo zerbitzu publikoen murriztearekin. Horren adibide dira Zuberoa, Zangozerria, Baztanaldea, Tafallaldea, Arabako Mendialdea edota Lea-Artibai, besteren artean.

> **“ Udalerri batek iraun dezan herritarrari hiru oinarri eskaini behar dizkio: zerbitzuak, bitarteko materialak –enplegua eta errenta– eta sozializaziorako aukerak**

Landa eremuetako aukera ekonomiko urrien ondoan jarduera ekonomiko garatuenak edo zerbitzuetako enplegu gehienak eremu metropolizatuetan daude. Horrek guztiak bereziki eragin die nor bere herrian bizitzeko aukeraren bila jarri diren gazteei. Hots, herri txikietan bizibiderik topatu ez duenak gune urbanoagoetara jo du, eta herri txikietan geratu direnak bizitzeko baldintza materialak bermatuta dituztenak edo enplegu-guneren bat gertu dutenak izan dira. Beraz, hiriak bilgune nagusi bihurtzen ari dira Mendebaldeko herrialde guztietan, eta gurean ere bai. Bertan sortutako herritarrak zein atzerritik etorritakoak hartzen dituzte, gero eta aniztasun handiagoko eremuak bilakatuz. Eta bidenabar, landa guneak gazteak galtzen ari dira, zahartzen.

2008tik 2017ra bitartean 375.000 lagun etorri dira Hego Euskal Herrira bizitzera Espainiatik eta Frantziatik, baita haragotik ere. Gune metropolizatuetan kokatu dira asko, baina Frantzia edo Espainiaz landa sortutako immigrazioaren kontzentrazio maila nagusiak hurrengoak dira: Arga-Aragoiko Erribera, Tuteraldea, Iruñerria, Ebro-Garaiko Erribera, Bidasoaldea eta Tafallaldea. Lan baldintza kaskarrak eskaintzen dituzten sektoreak dauden eremuetan, alegia.

UDALERRIEN GEROA

Udalerri batek iraun dezan herritarrari hiru oinarri eskaini behar dizkio: zerbitzuak, bitarteko materialak –enplegua eta errenta– eta sozializaziorako aukerak. XXI. mendean horiek dira jendeak hirietan edo herrietan bizitzea aukeratzerakoan eskatzen duena, hau da, eredu estandarren pare bizitzea. Alta, herri txikietako bizilagunek hirien pare bizitzeko gero eta baliabide gutxiago daukate, edo nahiago bada, gero eta handiagoa da aukeren arteko desoreka. Euskal Herria txikia izan arren, Nafarroa Garaiko Pirinioetan, Araban eta Erriberan distantziak handiak dira, be-

BIZTANLERIAREN BILAKAERA 2009/18 EPEALDIAN eta HIRIBURUEN ZONALDE FUNTZIONALAK. EUSKAL HERRIA



GAINDEGIA

raz zailtasunak ere bai. Edo, konparazionera, Ipar Euskal Herrian euskaraz ikasi nahi dutenak edo Baionako Ospitalera joan behar dutenak hauengandik hurbil dauden inguruetara desplazatu behar dira.

Bizkaian eta Gipuzkoan egoera bestelakoa da, lurraldea orekatuagoa da demografia, zerbitzu zein jarduera ekonomikoaren ikuspegitik. Hala eta guztiz ere, udalerri txikiek segitzen dute lehiatzen hiriguneekin. Lea-Artibai eskualdea biztanleria galtzen ari da, nahiz eta identitate sendoko eremu euskalduna izan, ekintzailetza ekonomiko aipagarriarekin eta sustapen ekonomikorako azpiegitura eraginkorrak eduki arren. Halere, lurralde antolamenduaren ikuspegitik baztertutako lurraldea izaki, eta garraio-azpiegituren gabeziak tarteko, ez du biztanleria atxikitzeko eraginkortasun erabatekoa lortu Durangaldearekin edo Bilbo Handiarekin lehian.

Euskal Herriko lurralde antolamendua administratiboki atomizatuta dago eta ez dago lurralde-kohesio politika adosturik. Horregatik, halaxe dio Esnaolak: “XXI. mendean gaude, eta arazoa aintzat hartzen dugunok lurralde biziberritzearen kontzientzia izan behar dugu, eta bereziki, landa-guneena. Gure ondare material eta inmaterial handiak bertan daude, herri iraunkortasunean oinarritutako aukerak landagunea behar du, hots, naturgune zabalak, zura eta ura, elikagaiak ontzeko lurra, euskaraz bizi diren komunitateak... eta abar”.

BA OTE KONPONBIDERIK?

Landa giroko euskal udalerriak, ordea, ez daude sare batean antolatuta, ez zaizkie ahots bakarrez mintzatzen euskal jendarteari eta instituzioei. Esaterako, udalerri euskaldunek lurralde antolamenduan euskara aintzat har-

Udalerri kopuruaren erdiak biztanleria galera nozitu du azken hamarkadan

Euskal Herriko udalerrien erdiak biztanleria galera nozitu du azken hamarkadan. Haatik, herritar kopurua gorantza doa. Euskal Herriak 3.152.200 biztanle ditu. Azken urtean, berriz ere, hazkunde demografikoa positiboa izan da biztanleria etorkinari esker. Bizkaian, esaterako, etorkin berriak direla tarteko, herrialdeak biztanleria galtzeari utzi dio azken biurtekoan. Zuberoa da, aspaldiko joeraren ildoan, 2018. urtean herritarrak galdu dituen herrialde bakarra. Hala ere, Zuberoaren despopulazioa ez da arreta merezi duen fenomeno bakarra.

DEGURBA (Hirigintza maila) sailkapenaren arabera, hiru lurralde tipologiek –hiriguneak, landa-eremuak eta bitarteko hiriguneak– biztanleria irabazi dute azken urtean eta hamarkadan. Euskal Herriak hazkunde demografikoari eusten dio, baina biztanleen %17,4 baino ez da bizi landa eremuan. Joera orokor horren atzean hainbat ñabardura daude: 200 biztanle baino gutxiago duten 150 udalerri daude, horietatik, 55k 100 biztanle baino gutxiago dute. Demografikoki geografia bereziki sentikorra dira Lizarrako merindadea, Zuberoa, Erronkari-Zaraitzu, Auñamendi edo Garazi-Baigorri bezalako eremuak.

Espainiako Estatuko despopulazioak enplegua eta zerbitzuak barnebiltzen dituzten tamaina ertaineko hirien osasunaren garrantziaz ohartarazten digu. Euskal Herriko errealitatera ekarrita, funtzionalki eskualdeburuak dira lurralde orekari eusten diotenak.

AZKEN URTEKO JOERA

Bizkaiko eta Zuberoako landa eremuek biztanleria galdu dute. Zuberoako galera larria eta aspaldikoa da. Lehen mundu gerraz geroztik datorren joera pean dago, mende oso bateko biztanleria galera nozitzen ari da. Bitartean, Bizkaiko hiriguneak 2011z geroztik nozitzen zuen biztanleria galera eten egin da, baina krisi hasieran baino 13.700 biztanle gutxiago ditu.

ESPAINIAKO ETA FRANTZIAKO ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO HERRITARREN PATROI ESPAZIALA
Euskal Herria, 2018



Iturria: INE, INSEE, EUSKALGEO. GAINDEGIA
Oharra: Izartxoek adierazgarritasun maila zehazten dute

tua izan dadin ukan duten arrapostuak azaltzen du zenbaterainokoa den gutxiespena.

2000ko hamarkadan, eremu euskaldunek lo-hirien fenomenoa jasan zuten. Hiriburuetatik haietara bizitzera joan zirenek euskal komunitate hauskorrak aurkitu zituzten. Alabaina, ez da estrategia zehatzik izan bertaratu zirenak egoera linguistiko berrian egokitzen laguntzeko, eta lurralde antolamenduan hizkuntza- irizpideak kontuan hartu gabe jarraitzen du administrazioak. Horrek, bistan da, ondorio kaltegarriak izan ditu komunitate horien hizkuntzaren erabilera arauetan.

Auzia hain garrantzitsua denez gero, premiazko arazoa bihurtu da: nola landu hiri eta landaren arteko elkarbizitza Euskal Herrian?

Gaindegia-ko kideek diotenez, lurraldeen historiaren garapenetik eratorritako hainbat ezaugarri aintzat hartu behar dira:

- Hasteko, Bizkaian eta Gipuzkoan gerra ondoko hazkunde demografikoa lurraldean sakabanatutako industriak bultzatu zuen. Gaur egun, ordea, ezinezkoa da biztanleria multzo hura ordezkatzea, ez bolumenean, ez geografikoki.

Irunberrialdea, Auñamendi, Erronkari-Zaraitzu, Arabako Mendialdea edo Zangozerria eskualdeetan biztanleria galera esanguratsua eman da. Eskualde horien artean, gehienek biztanleria galera garrantzitsua nozitu dute azken hamarkadan. Hortaz, kasu gehienetan errotutako despopulazio joera bati erantzuten dio.

Euskal Herria osatzen duten 686 udalerrietatik 339 udalerrik biztanleria galdu dute. Horietatik 291 landa-eremuan daude. Biztanleria gehien galdu duen udalerri kopurua Nafarroa Garaian dago. Halaber, galdera izan da Lizarrako merindadearen ekialdean. Gernika-Bermeo, Araba Errioxa, Garazi-Baigorri edo Goierrin ere, modu batean ala bestean, herritarrak galdu dituzten udalerrien kopurua aintzat hartzeko modukoa da.

AZKEN HAMARKADAKO JOERA

Zuberoako landa eremua izan da biztanleria gehien galdu duen eremua: hogeita zortzi udalerrik biztanleria galdu dute, eta soilik hamabostek irabazi edo doi-doi eutsi. Gainera, eremu horren gainzahartzea handia da: %15,8. Bitartean, Lapurdi zein Baxenabarreko landa eremuen hazkunde demografikoa garrantzitsua izan da: %17,8 eta %6,5, hurrenez hurren, batez ere Lapurdin. Hots, hirigintzaren susperraldia dela eta, "lotarako herrien" paradigma eta mugikortasuna gero eta indar handiagoa dira barnealdean. Horrek ez dio Zuberoari eragiten, haatik.

Nafarroa Garaiko landa eremuak ere biztanleria galdu du: %0,8. Hiriguneak ez bezala: %5,4. Egoera bereziki larria da Erronkari-Zaraitzun. Herritarren %14 galdu da eta gainzahartze maila oso handia da: %20. Erronkari-Zaraitzu eskualdeko hemezortzi herrietatik hamabik biztanleriaren %10etik gora galdu dute. Eskualdean ez dago biztanleria galerarik izan ez duen udalerririk.

Nafarroa Garaian, Zangozerrian, Baztanaldean, Tafallaldean, Ebro Garaiko Erriberan edota Arga-Aragoiko Erriberan ere biztanleria galera aintzat hartzekoa da. Izatez dentsitate apaleko eremuak dira eta gainzahartze maila Euskal Herriko batez bestekoaren gainetik dute. Edonola ere, ez dira biztanleria galdu duten Nafarroako eskualde bakarrak. Bitarte horretan Iruñerriko biztanleria %6,8 hazi da. Lurralde desoreka nabarmenen aspaldiko joerak dira hauek, eta itxura batean, azken urteotan desoreka hauek lausotzen hasiak dira. Alabaina, joerak oraindik oso errotuta daude herrialdearen errealitatean.

Hego Euskal Herrian bertan ere badira biztanleriari eusteko egiturazko arazoak dituzten beste zenbait eremu. Nabarmentzekoak dira Arabako Mendialdea, Trebiñu edota Lea Artibai. ●

• Beste hainbat herri erronkatan bezala, udalerri txikiek iraun dezaten ez dago herri estrategia adosturik. Prozesuak badaude, baina horiek ez dira berariaz adostu eta antolatuak, ez eta denboran iraunkorrak ere.

• Euskaldunok udalerri euskaldunak kaltetzen hasi direnean hasi gara kezkatzen. Baina, esaterako, baserrien galerak ez ditugu aintzat hartzen. Europatik datorren nekazaritza politikak baserriak gure gizartean behar duen funtzionaltasunaren gainbehera ekarri du XX. mende amaieraz geroztik. Elikagaiak ekoizten baserritar gehiago balego, gaur egun, askoz oinarri egonkorragoak izango genituzke, ez bakarrik elikaduran, baita landa giroko udalerrien iraunkortasunean ere. Aukera hori gogotik landu beharko litzateke.

• 2000. urteaz geroztik populazioaren mugikortasun eta desplazamendu patroiak asko aldatu dira, baina horrek ez du eraginik izan metropolietatik oso urruti dagoen landa eremuan (Erronkari-Zaraitzu, Baztanaldea, Bortziriak edota Ebro ibaiaren bueltako eskualdeak).

• Arazoa ez da soilik udalerriak antolatzerakoan prozesu ahulak egotea, baizik eta landa eta hiriaren arteko osagarritasuna zehazteko herri hitzarmenik ez egotea. Nafarroa Garaian eta Ipar Euskal Herrian oso nabaria da non eraiki diren etxebizitzak eta horrek zein mugimendu demografiko eragin duen. Pirinioetako udalerrien indizeak kezkagarriak dira, eta Erriberako hainbat herrirenak ere bai.

> **Udalerri euskaldunak kaltetzen hasi direnean hasi gara kezkatzen euskaldunok. Baina, esaterako, baserrien galerak ez ditugu aintzat hartzen**

Horiek horrela, nazio garapenari buruzko gogoeta ahul dago eta horren erakusle dira lurralde orekari buruzko eztabaida sozialik eza edo politika publiko ahulak. Auziak bi erantzun arduratsu behar ditu gizarte antolatuan eta erabakigune institucionaletan. Gurean, UEMAk gogotik heldu dio gaiari hizkuntza arloan. Ipar Euskal Herrian, ELBren bidetik agenda osoagoa etorri da. Araban, kontzejuen aldeko mugimendua izan da gaia plazaratu duena: "Lurralde orekari ez diogu maila politikoa eman, baina maila politiko handiko auzia da. XXI. mendean ez da iraunkortasuneko herri egitasmorik izango, ez badugu lurralde orekan oinarritzen, Eusko Ikaskuntzaren kongresuak hor ere egin du azpimarra", dio Esnaolak.

GAIA EZ DAGO AGENDAN

Eremu metropolizatuen eraginkortasun ekonomikoa handituz joan da. Ondorioz, lurraldearen hiru laurdenak ez daude hiriguneko espektatiba ekonomiko altuen pare. Lurralde orekari dagokionez harreman asimetriko horren kontzientzia falta dago, baita lurralde oreka lortzeko metodoen inguruan ere.

Imanol Esnaolaren iritziz "landa-gunea biziberritzea da estrategia nazionaleko oinarrietako bat. Ez dago herri izaterik bere errealitate geofisikoari egitasmo irmoa ematen ez bazaio. Herri honi gorputzaren atal guztiak aitortu behar zaizkio, nazio izango bagara".

Zer falta da? Baliabideez ari bagara, indar sozialak eta politikoak eragingarriagoak bihurtzea. Gaur gaurkoz ez dago halakorik. Agian, urtetako lanaren eta kontzientziatzearen poderioz, hogei urte barru, landa guneen kontserbazioa eta biziberritzea izango dira gehiengo sozial eta politikoaren aldarria. ●

Bi abiadurako Euskal Herria

Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa eta EHUko irakaslea

Euskal Herriko despopulazioaren arazoa oraindik ez da ailegatu Europako beste herrialde batzuetako neurri larrietara (Bulgaria, Errumania, Espainia, Portugal) baina dagoeneko zantzu kezkagarriak dauzkagu mahaigainean, azken hamarkadan biztanleriaren hazkunde-tasa negatiboa duten euskal eskualdeek eremu zabal, jarraitu eta argia osatzen dutelako jada. Gutxienez Arabako Trebiñu eta Mendialdea, Nafarroa Garaiko Lizarraldea, Tafallaldea, Zangotzerria eta Erronkari-Zaraitzu, eta Zuberoa osoa daude dinamika demografiko arriskutsua pairatzen duen eremu geografikoan. Hiri handirik ez duen barneko lurraldean, alegia. Despopulazioaren fenomenoa hirien eta kostaldearen nagusigo garaikidearen ifrentzua baita. Hainbeste, non bi abiadurako Euskal Herria sortzen ari garen. Nahi gabe... edo nahita.

Barnealdeko landa-eremuaren huste demografikoaren atzean hainbat faktore dago (nekazaritzaren gainbehera, zerbitzuen eskasia, orografia...), baina arrazoi gehienak indar-harreman desorekatu baten ondorio dira: erabakigune nagusiak hirietan izaki, hirietatik eta hirietarako hartzen dira erabaki gehienak. Gure gobernantza, onerako zein txarrerako, ez delako lur kopuruan oinarritzen. Ondorioz, Euskal Herrian (ere) lurralde-antolamendu urbanozentrista baten zurrunbiloan gaude, non inbertsio distiratsuak hirietara erakartzen diren, eta azpiegitura deserosoak (zabortegiak, errauskailuak, kartzelak, poligono logistikoak, herrietan gelditzen ez diren trenak...) landa-eremura kanporatzen. Kulturalki ere baztertzen ari garen mendialdea soilik asteburuko aisialdirako hartzen dugu kontuan proportzioan gero eta gehiago garen kalekumeok.

Bi abiadurako Euskal Herrian lurralde-kohesio handiagoa sustatuko badugu, egoerari buelta eman behar diogu berandu baino lehen. Kontuan izanda putz eta zurrut ezin direla batera egin, eta, demografia orekatzeko, hiriburuen nagusigoa mugatu beharra dagoela, elektoralki erakargarria izan ez arren. Ideia horren antipodetan dago, esaterako, Araba, makrozefalia-indize ikaragarria duena, herrialde osoko biztanleen %76 Gasteizen bizi delako: hutsaren hurrengoa izango da landa-eremua suspertzeko Aldundiaren ekimena (proposatu diren onura fiskalak, adibidez), Gasteizen jada planifikatuta dauden 30.000 etxe berriei buelta ematen ez badiegu. Landa zein hiria, biak ala biak, ulertu behar ditugulako lurralde bakarraren parte gisa, arazo (eta soluzio) bakarraren osagai moduan.

Eta, jakina, landa-eremuan familiak errotzeko proiektuak jarri behar ditugu martxan. Tokiko baliabideak eta indarguneak garatuko dituzten proiektuak. Deszentralizatuak, eskualdean edo bailaran errotuak eta herri-partaidetzatik eraikiak. Baditugu ereduak: baso komunalen kudeaketa, eskola txikiak, lur-banku publikoak, energia sortzeko eta banatzeko proiektuak, euskararen arnasguneak indartzeko ekimenak, agroekologia lantzeko eta transformatzeko estrategiak, tokiko moneta, industria-klusterrak, tokiko ekoizleekin batera antolatutako salmenta-sareak, ondarea babesteko eta ezagutarazteko proiektuak, etekin sozialeko ekipamenduak...

Kanpoko inbertsoreak (enpresak zein turistak) erakartzeko saiakera puntualek etekinak eman ditzakete epe laburrean. Baina bi abiadurako Euskal Herriaren areagotzea modu iraunkorrean ekidin nahi badugu, aipatutako hiru estrategiak dira jarraitu beharrekoak: eskala ideologikoan, landa eta hiria batera ulertzea; Euskal Herri osoaren eskalan, lurralde-oreka erdiesteko neurriak hartzea; eta, eskualdeen eskalan, tokiko garapen endogenoa indartzeko proiektuak lantzea. ●

Udalerri txikien geroaz

Imanol Esnaola
Gaindegiako koordinatzailea

Udalerri txikiak hilzorian daudela diogunean (gogoan izan 150 udalerri badirela hazkunde negatiboa izaten ari direnak), ez gara zorizko gertaera bati buruz ari. Udalerri txikiak ahuldu zein indartu, eraikitzen dugun inguruak eragiten du. Euskal Herriak prozesu demografiko gogorrak bizi izan ditu azken 60 urteotan eta lehengo gaztetzeari oraingo zahartzea datorkio. Baina herri txikien arazoa ez da zahartzea, biztanleria gaztea galtzea baino.

Hazkunde ekonomikoko urteetan, lurraldean sakabanatutako industriak lagundu du nola edo hala, biztanleria errotzen, baina 2008 inguruko atzeraldi ekonomikoak industria ehun horren zati handi bat galarazi du, eta hor agertu zaigu arazoa. Zer egin behar dugu orain industria gutxiago duten komunitate horiek iraunarazteko?

Euskal Herriaren metropolizazioak beretzat hartu ditu jarduera ekonomiko eraginkorrenak, baita gazte prestatuenak ere. Atzeraldi ekonomikoak landaguneetako inbertsio publikoak ahuldu ditu. Euskal Herriak ez du jakin landa-guneari dagokion izaera aitortzen, metropoliaren mendeko eremu zehazgabetzat hartu dugu. Eta beraz, ez dugu landa-guneak bizirauteko iraunkortasun paradigma eraikitzen. Lurraldea desorekatzen ari bazaigu ez da herrien txikitasunagatik, komunitateontzat iraunkortasun paradigma eraiki ez dugulako baizik.

Udalerri mailako komunitateak iraunkorrak izateko zerbitzuak, bizitza soziala eta oinarri material egokiak behar dira. Hor dago erronka. Gai izango ote gara metropolien zilborrari begiratu ordez, lurraldeari bere integraltasunean begiratzeko? Gai izango ote gara politika publikoen bitartez gure lurraldetasuna aintzat hartzeko? ●

Gure herriak, aukera guneak

Isabel Elizalde Arretxea
Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko jarduneko kontseilaria

Landa-eremuko oraina eta geroa erakargarria, berritzailea, gaztea, femeninoa eta konprometitua izatea nahi badugu, landa-eremuetan bizitzea eta lan egitea aukera dela ulertu behar dugu eta ez lasta. Belaunaldiz belaunaldi, ikusi dugu gure hainbat bailarak, urtetik urtera, nahiz eta ahaleginak eta inbertsioak egin, biztanleria galtzen jarraitzen dutela, tantaz tanta, zenbaitetan itzulezineko egoerara iritsita. Gaur egun hiriek handitzen jarraitzen dute, eta herri anitzek husten.

Makina bat arrazoi dago eta, zenbait kasutan ahaleginak egin dira egoera itzultzen saiatzeko, baita biztanleria galerari aurrea hartzeko ere. Baina aspaldi antzeman dut bi afera errepikatzen direla behin eta berriro, gainditu beharko genituzkeenak: batetik, herrietako bizitzaren inguruan eraiki den kontaketa; eta bestetik, politikak aplikatzean izan den ikuspegi integral eskasa.

Duela oso gutxi, Nafarroako Pirinioetan izandako eztabaida publiko batean, nekez 30 urte izango zituen gazte batek hausnarketa egin zuen eskolan, baita etxean ere, esaten ziotenari buruz. Bere maisu izandakoari gogorarazi zion honek animatzen zuela hirira joatera etorkizun ona eduki nahi bazuen; jarrera hori konstante bat izan da gure herri askotan. Gazte horrek, halaber, bere buruari galdetzen zion ea itzuli zirenak eta herrian geratu zirenak prest ote zeuden bailaran sustrairik ez duten pertsonei harrera errazteko, baldin eta pertsona horiek lan egitera, ekintzailetza bultzatzera eta gure bailaretan bizitzera etorri nahi balute. Beti ez da erraza izan. Bertzaldetik, landa-eremura hiri-ereduaren bila datorrena oker dabil, eta ibarra bertan sortu direnena dela pentsatzen duena ere oker dabil.

Gaur egun gure bailarak eta herriak aukera guneak dira, eta are gehiago izan behar dute. Ingurune zainduetan, aberatsetan, baliabideak dituztenetan bizitzeko aukera; jasangarriagoa izanen den beste ekonomia-eredu batera igarotzeko aukera; ekonomia-jarduera berritzaileagoak, berdeagoak garatzeko aukera, ekonomia zirkularrari lotuta; munduarekin komunikatzeko aukera, tokian tokikoan eta globalean pentsatzeko; erkidegoa egiteko eta horrekin eta gure naturarekin konpromisoa hartzeko aukera; klima-aldaketaren aurka borrokatzeko, hobeto eta bertze modu batera bizitzeko, landa-eremuan bizi ahal izateko aukera.

Eta aukera hori errealitate bihurtzeko, herri-administraziook (tokikoak, herrialdekoak, estatukoak eta Europakoak) herrietako eta bailaretako dinamikak eta errealitateak ulertu behar ditugu. Kostatu bazaigu ere, politikoei eta proiektuei eman behar zaien ikuspegi holistikoz hitz egiten duten ahotsak entzuten hasi gara dagoeneko. Ikuspegi hori landa-eremuaren aldarrikapen nagusietako bat izan da. Betidanik nahi izan dute politikariek eta administrazioek arazoa bere osotasunean ikustea, ez ikuspegi sektorial batetik edo interes alderdikoi batetik.

Nazioartean badira jarraitu beharreko bidea erakusten diguten gidalerroak, Garapen Jasangarrirako Helburuak 2030, kasurako. Nafarroan, gainera, hainbat aurrerapauso eman ditugu: bertzeak bertze, Toki Administrazioaren erreforma; Tokiko Inbertsio Plana; Landa Garapeneko Programa; Hondakinen Legea edo Banda Zabaleko Plana. Halaber, esku artean ditugu Lursarea (Lurraldearen eta Jasangarritasunaren agentzia) eta landa garapeneko taldeak. Alabaina, gai anitz dugu lantzeko; bertzeak bertze, lurraldearen antolamendua eta kudeaketa XXI. mendeko errealitatera egokitzea, edo hurrengo Nekazaritza Politika Erkideak (NPE) familia-ustiapen profesionalaren eredua defendatzea lortzea.

Despopulatzeari aurre egiteak ausardia, burua eta bihotza eskatzen ditu. Anitz dugu kontatzeko, konta dezagun, erran eta egin dezagun, oilarrak kantatzen segi dezan, etxeek zabalik jarrai dezaten, soroek eta basoek ekoizten jarrai dezaten, errekek gure irriak entzuten jarrai dezaten, eta gu guztiok gure herrietan kalitateko oraina eta geroa izan dezagun. ●

EGIN-GARA INFORMAZIO ESKUBIDEAREN ZAPALKETA

Egin-en errautsetatik sortu zuten *Gara*, lehena itxi eta sei hilabetera, 1999ko urtarrilean. Baltasar Garzón epaile ahalguztidunak *Egin* itxita, egunkari berriak bazekien ez zuela ibilbide samurrik izango aurrera begira. Lehen kolpe latza 2003ko uztailean etorri zen, Orain SAk – *Egin* argitaratzen zuen enpresak– Espainiako Gizarte Segurantzarekin zuen zorra Baigorri SAren –*Gara*-ren enpresa– bizkar utzi zuten, "enpresa jarraipena" argudiatuz.

XABIER LETONA **ALBERTO ELOSEGI**

Argudioa Garzón epaileak eraiki zuen, *Gara* egunkaria *Egin*-en "jarraipen ideologikoa" zela finkatu zuenean. Hainbat irizpide baliatzen dira "enpresa jarraipena" dagoen ala ez erabakitzeko, baina hiru dira nagusi: kapital bera izatea eta, langile eta ondasun berdinak izatea. *Gara*-ren kasuan ez zegoen horrelakorik: beste enpresa bat zen, beste kapital bat, beste ondasun batzuk –*Egin*-enak epaitegien menpe ziren–, langile batzuk berdinak eta beste batzuk ez... Baina berdin zen, irakurle esparru berdintsura bideratzea nahikoa zen.

4,7 milioi euro ordaindu behar zituen *Gara*-k. Ordaindu ezin zuenez kiebra egoeran geratu zen Baigorri SA eta "ordainketa etena" agindu zitzaion. Hortik aurrera enpresaren kontu guztiak epaileak ezarritako ikuskatzaileen zaintzapean egin beharko zituen. Oraindik ere egoera horretan dago, eta gasturik txikiena egiteko kontu-hartzailearen baimenarekin egin behar dute.

Gara-k bide juridiko guztiak urratu ditu "enpresa jarraipen" deliturik ez duela egin frogatzeko, baina dena izan da alferrik. 2003an Baigorri SAk helegitea jarri zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko Auzi Epaitegi Zentralean, enpresa jarraipenaren prozedura

administratiboa bertan behera uzteko eskatuz. 2005eko azaroan Auzitegi Nazionalak arrazoi eman zion Baigorri SAri, baina Gizarte Segurantzak beste helegite bat jarri zuen eta oraingoan, 2006ko urrian, Auzitegi Nazionaleko Auzi Salak arrazoia eman zion Espainiako erakundeari. Baigorri SAk azken ahalegina egin zuen Konstituzio Auzitegira joz, baina 2008an honek aintzat ere ez zuen hartu helegitea.

1998KO UZTAILAK 15

Egun horretan, kazetari hau duela 21 urte Lasarte-Oriako ARGIA-ko bulegora iritsi zenean, albistea berretsi zion irratiak: Baltasar Garzón buru, ehunka polizia ari ziren miatzen Hernanin *Egin*-eko egoitza. *Pertsiana operazioa* abian zen. Berehala konfirmatu zen txarrena: epaileak *Egin* eta *Egin Irratia*-ren "itxiera mugagabea" agindu zituen ETAren egituren zati bat zirela leporatuz. Arrazoi poli-

POLICIA
POLICIA

tiko edo ideologikoengatik Espainiako "demokrazia gazteak" ixten zuen lehen egunkaria zen, informazio eskubidea guztiz zanpatuz.

Hernanira hurbildu eta panorama latza zen, *Egin*-eko langileak eta herritar ugari polizia hesiaren aurrean, amesgaiztoa sinetsi ezinik. Egunkariko zuzendaritzako hamaika pertsona ere atxilotu zituzten "talde terroristako kide izatea" leporatuta. 18/98 makroauzi ezagunean auziperatu zituzten geroago, espetxe zigor gogorrak bizkarreratuz. Biharamunean *Egin*-eko langileek *Euskadi Información* egunkaria argitaratu zuten, *Gara* sortu arte iraun zuena. Eta, besteak beste, Donostian manifestazio erraldoi batek itxiera salatu zuen.

Ez zen sinesgarria, baina gertatzen ari zen, horren adierazle txiki bat itxieraren karietara 1998ko uztailean idatzi nuen erreportajearen esaldi hau: "Berez dator galdera: eta gero zer? HB legez kanpo jartzea, adibidez? Imajinagaitza, baina nork imajina zezakeen Iruñeko *Gaixoa ni*-tik ordu batzuetara *Egin* itxiko zutela?". Ez zen aztia izan behar, ezin genuen etorkizuna asmatu, baina baziren susmoak.

JON URBE

10.000 pertsona harpidedun egiteko kanpaina bultzatzen ari dira eta dagoeneko 7.000 lortu dituztela iragarri dute

JAZARPENA ASPALDI HASI ZEN

Egin-en aurkako kolpe hilgarria izan zen hura, baina lehenago ere egunkariak estatuaren hamaika eraso jasan zituen: 1979an orduko zuzendari Mirentxu Purroy atxilotu zuten ETAren komunikatu bat argitaratzeagatik. 1982 eta 1992 artean José Felix Azurmendi zuzendaria hamalau aldiz pasatu zen epaileen aurretik egunkarian argitaratutako hainbat artikulurengatik; eta 1980 eta 1982 artean agintariek zenbait zenbaki bahitu zituzten.

Urterik gogorrenetakoak, aldiz, bere azken bospaseiak izan ziren eta oraingoan erasoak askoz gertuagotik zetozen. 1993ko abenduan Juan Mari Atutxa Eusko Jaurlaritzako barne sailburuaren bultzadaz, Ertzaintzak *Egin*-eko egoitza miatu zuen, eta hauen ondorioz 1994ko abuztuan ikerketa saileko buru Pepe Rei atxilotu zuten. José Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako lehendakaria ere egunkaria ixtearen alde agertu zen, hori egitea "higiene demokratikoa" zatekeela esanez. 1996an Atutxak berak honako lorea eskaini zion kazetari: "Goizero-goizero, 50en bat gramoko amosal bonba txiki batek eztanda egiten du".

LIZARRA-GARAZIKO LEIHOA

90eko lehen hamarkada horretan sasoi oso gogorrak ezagutu ziren euskal gizartean, Ajuria Eneko Itunaren bultzatzaileen eta ezker abertzaleko gizarte sektoreen arteko konfrontazio oso gogorra bizi zen, besteak beste ETAren bahiketak arbuiatzeko atera zen xingola urdinaren testuinguruan. ETAk, halaber, sasoi hartan egin zuen publiko "sufrimendua barreiatzearen" politika ezaguna. Euskal gatazka gori-gori zegoen. Estatuaren jazarpena gero eta estuagoa zen, eta horrela formulatu gabe ere jadanik "dena da ETA" ikusmoldearen hastapenak ziren. 1997an izan zen lehen abisu sendoa, ETAren agiri bat hauteskunde kanpainan erabiltzeagatik HBko zuzendaritza espetxeratu zutenean.

1998an izan zen bigarren kolpe handia, *Egin*-en itxiera. Bultzada politikoa nondik zetorren berehala argitu zuen Espainiako Gobernuko lehendakari José María Aznarrek uztailaren 23an Turkiatik: "Norbaitek uste al zuen ez ginela ausartuko?". Urtebete beranduago, ETAk su-etena iragarri eta egun gutxira, Moncloak "ENAMekin kontaktuak ireki zituela" iragarri zuen agiri batean.

Egin-en itxierak aurretiko horiek guztiak zeuzkan, baina aldi berean, esperantza leiho handia irekitzear zen: 1998ko irailean Lizarra-Garaziko Ituna sinatu zuten euskal indar politiko, sindikal eta sozial ugarik. HB eta EAJ ziren oinarrian, baina PSEren eta PPren inguruko indarrak kenduta, gainerako ia guztiek sinatu zuten akordioa. Ezaguna den moduan, bake bide horrek porrot egin zuen eta gatazka indarrez piztu zen berriz. Latza, nahasia eta esperantzaz betea izan zen garai hura. ARGIA-k uztailaren amaieran aterako duen *Aktualitatearen Gakoak* argitalpenean egindako elkarrizketan Iñaki Lasagabaster EHUko katedradunak dioenez, garai hartan hasi zen estatua

JUAN CARLOS RUIZ

egungo joera autoritarioak diseinatzen eta diseinu horren erdigunean jartzen du José María Aznar PPko buruzagia.

Egin-eko zuzendaritzako hamaika pertsonak kartzela zigor gogorrak jaso zituzten: esate batera, Javier Salutregi zuzendariak 12 urte eta Teresa Toda zuzendariordeak 10 urte. 2009an Espainiako Auzitegi Gorenak erabaki zuen *Egin* ixtea ez zela bidezkoa izan eta kartzela zigorrak erdira jaitsi zituen. Gorenaren erabakiak, ordea, ez du eraginik izan *Gara*-ren zorrean. Urte hauek guztietan Aznarren "...ez ginela ausartuko?" haren oihartzuna azken epaitegi zuloraino sartu da.

HIRU MILIOI EURO EPEKA

2008an Espainiako Konstituzio Auzitegiak ez zuen onartu *Gara*-ren helegitea eta Espainiako Gizarte Segurantzak jarraipena eman zion zorra kitatzeko bideari, baina kitapena ez zen gauzatu 2017ra arte. Epaileak orduan esan zuen: "Edo ordaindu edo itxi". *Gara*-k helegitea jarri zuen, baina ez zen aurrera atera eta 2018ko udazkenean gauzatu zen agindua. Ia 200 lanpostu ziren arriskuan. Azkenean, akordio batera iritsi zen Gizarte Segurantzarekin eta epeka ordaindu beharko du hiru milioi euroko zorra: lehen kitapena akordioarekin batera egin zen, uztailaren amaieran bigarrena ordainduko da, hirugarrena urrian, eta gainerako hiru zatiak ondorengo hiru sei hilekotan.

"Edo ordaindu edo itxi". *Gara*-k helegitea jarri zuen, baina ez zen aurrera atera eta 2018ko udazkenean gauzatu zen agindua. Ia 200 lanpostu ziren arriskuan.

Nondik atera dirutza hori? Bere sorreran 10.000 pertsona *Gara*-ko akziodun egitea lortu zuten moduan, orain 10.000 pertsona harpidedun egiteko kanpaina bultzatzen ari da egunkaria eta dagoeneko iragarri dute 7.000 harpidetza lortu dutela. "Helburua da gutxienez bi urte eta erditan harpidedun horiek hilero 12,5 euro ordaintzea", diosku Asier Iñigo, *Gara*-ko komunikazio eta marketing arduradunak; gaineratzen duenez, "dirua bakarrik ez, proiektuarekiko lotura nahi dugu, komunitatea sendotu". Norbanako armada txiki batez gain, Euskal Herri osoan 180 talde dituzte harpidetzak lortzen.

Horrez gain, Euskal Herriko artista ugarik beren arte lanak eskaini dituzte kanpaina sostengatzeko eta ekainaren 9an kontzertu erraldoia egin zen Donostiako Illunbe plazan, hamaika ordutan 30 taldetik gora eta milaka ikus-entzule bilduz. Beste hainbat ekimenen artean, 800 kazetari baino gehiagok sinatu dute *Gara* jasaten ari den espoliazio honen aurkako agiria, eta haiek ere argi dute: "*Egin* legez kanpo itxi zuten 1998an, gerora Auzitegi Gorenak onartu zuen bezala. Orain Gizarte Segurantzarekin zeukan zorra *Gara*-ri egoztea burugabekeria dela uste dugu, eta komunikabide hau eta bere langileak modu bidegabean zigortzen dituela". *Egin* itxi zuten, ETA desagertu zen, baina "dena da ETA" horren itzalak bizirik dirau. ●

ENPRESAREN SORTZAILEAK (III)

Nor da Glovo?

Lau atalez osatutako saileko hirugarren artikulua da hau. Bertan, aztergai da Glovoren negozio-eredua, baita bere ingurukoekin daukan harremana ere. Glovoren sortzaileek egindako adierazpenetan oinarrituta, artikulu honek haien mundu-ikuskera irudikatzea ahalbidetuko digu eta, horrela, Euskal Herrian, inguruko Estatuetan eta mundu osoan aurrera eraman nahi dituzten aldaketak hobeto ulertzeko gakoak ematen saiatuko gara. Beren ideologia zaila izan daiteke ulertzeko gure testuinguruan, baina Sillicon Valleyn sortutako pentsaera politiko berri eta arriskutsua du.

EGILEA I **PAUL IANO**
ITZULTZAILEA I **DIEGO PALLÉS LAPUENTE**

Zerbait ulertu ahal izateko, bere hastapenei eta garapenari erreparatu".
–Aristoteles, metodo zientifikoaren aitzindaria, Glovoren zuribide guztien oinarria

Glovo Sacha Michaudek eta Óscar Pierrek sortu zuten 2016an. Hedabideak behin eta berriro limurtu dituzte beren hastapenaren istorio erromantiko bera kontatuz. Dena gazte ameslari batekin hasi zen: eguneko edozein ordutan, edonori edozein gauza eramatea desiratzen zuen gaztea. Ipuin hori nahiko entzuna dugu, Glovok eredutzat dauzkan enpresa askok antzeko sorrera-mitoak dituzte –Applek, Googlek eta Amazonek, esaterako– eta izugarri maite dute horiek jendeari kontatzea: unibertsitate ikasle kementsu batzuek haien garajeetan sartuta enpresa berri hori eta bestea sortu zituzten, baliabide gutxi baina ideia bikain bat izanik. Inolaz ere ez dute kontatuko gazte horien jatorri pribilegiatuek emandako kapital finantzario eta sozial itzelak ezinbestekoak izan zirela hastapenetan.

Jatorriaren istorio sinple horrek ezkutatu egiten du errealitatea: Glovo Katalunian sortu zuten, bai, baina AEBetan du benetako jatorria. Mundu-ikuskera partekatzen duten eragin handiko enpresa talde batekoa da, eragin handiko pertsonek sortua. Hori gutako askok kezkagarritzat joko genuke, beldurgarritzat ez esatearren.

SORTZAILEAK

Sacha Michaud Londresen jaiotako britaniarra dugu. Enpresa teknologikoen munduan sartu eta LatinRed sortu zuen, gaztelaniazko webgunerik garrantzitsuenetarikoa garaian. Ondoren, garai hartan Uberreko zuzendari nagusietako batek, Niall Wassek, Betfair enpresan –Internet bidezko apustu-etxea– kontratatu zuen. Michaudek hamarkadak eman ditu antzeko lan teknologikoetan: plataformetan oinarritzeak eskaintzen duen erantzukizun mugatua eta baliabide teknologikoak konbinatuz milioiak lortu ditu bere nagusientzat. Batzuetan, negozio xelebreetan –eguzkitako betaurreko merkeak–, besteetan, moralki eztabaidagarriak diren batzuetan –menpekotasuna sustatzen duten apustu-zerbitzuak–. Bera da Glovorentzako inbestitzaileak lor ditzakeena bere harreman-sareaz baliatuz, eta esperientzia nahikoa du enpresaren eguneroko beharrak kudeatzeko.

Óscar Pierre Sillicon Valleyko enpresariaren estereotipoa da. Konpainiako ameslari gaztea da, jende arrunta zein inbestitzaileak liluratzen dituena Glovok gizartean zein beren diru-zorroetan izango duen eragin positiboa azalduz. Bere enpresa-ikuspegia "dirua lortzeaz harago" doa. Glovori hurkotasun-itxura ematen diona da: xaloa, oztopoen aurrean ausarta, xarmagarria, gaztetasunarekin lotu ohi den segurtasunez betea.

JATORRIA

Dirudiena baino gehiago dago, ordea, itzalpean. Beren ideiak eta helburuak azaltzen dituztenean, bi sortzaileei Sillicon Valleyko hizkeraren kutsua darie, agerian jartzen da "Kaliforniako ideologia" delakoaren jarraitzaile sutsuak direla. Ideologia horren zaleek gizartea hobetuko duten proiektu komunaletan sinesten dute, betiere lider ahalguztidunen zuzendaritzapean; sutsuki egoten dira edozein aldaketaren alde, eta gatazka eta desberdintasun ororen iturria komunikazio falta dela uste dute, ez klase eta talde sozialen arteko lehian dauden interes kontrajarriak.

Glovok bere kontrolpeko sistema behar du, bestela ez luke funtzionatuko. Hori ez da bateragarria *rider*-ekin izan nahi omen duen harreman lausoarekin

Pertsonak elkarrekin konektatzeko asmoari soilik erreparatuz gero, enpresa horiek kalterik ez ekartzeaz gain, hobekuntzak ere ekar ditzaketela dirudi. Gaia, ordea, hori baino sakonagoa da. Sillicon Valleyko pentsamolde politikoa ikertzean honako hau aurkitu zuen Gregory Ferensteinek: bertako enpresa teknologikoen jabeen ustetan, gizarte osoko soldaten %50a gizartearen %10ak bai-

DOS POR DOS / KAULDI IRIONDO

Michaudek esan zuen Glovok bere langile "autonomoen" baldintzengatik jasotzen dituen kritikak "sindikatuen ameskeriak" direla

no ez luke irabazi beharko; haien iritziz, egiazko ekonomia meritokratiko bat "ez litzateke oso edo guztiz bidezkoa". "Aukera"-berdintasunean sinesten dute, ez emaitza-berdintasunean.

Sortu nahi duten mundu horretan, garrantzitsuena ez da "jendeari merezi duena ematea, baizik eta jendeak gizarteari egiten dion ekarpena maximizatzea". Merkatu-efizientzia helburu desiragarria denez, ekarpen hori maximizatzeko erarik onena hau da: entitate pribatuak sortzea, inolako kontrolik gabeko lider ezin azkarragoek zuzenduak. Ondoren, entitate horiek gizarte-eraldaketa sakonak ekarriko dituzte haien proiektuen bitartez, adibidez: Facebook –"mundu guztia elkarrengana hurbiltzea"– eta Glovo –"gure erabiltzaileen aisialdia luzatzea; denbora familiarekin, lagunekin edo zaletasunetan emateko aukera eskaintzea"–. Hurkotasun-balioen alde agertzen badira ere, beren ekintzen ondorioz mundu mailako klase kontrolatzaile berria sortu dute, oraingo honetan zuribide berri eta hobea duena.

KONTROLA

Inbertsio-enpresa batek egindako elkarrizketa batean, honela azaldu zituen Michaudek enpresa horrek kontratatu ohi duen banaketa-konpainia tradizionalaren eta Glovoren arteko desberdintasunak:"Pentsatzen dut zuen esku ez dauden hainbat faktoreren menpe daudela zuen behar logistikoak. Zuekin zerikusirik ez duten bitarteko asko daude eta kontrola galtzen duzue. Glovoren kasuan, kontrakoa gertatzen da. [Glovok sortu duen] ekosistemak dena kontrolatzen du, ikusten? Begi-kolpe batean dena ikus daiteke une oro... Horrek esan nahi du ezustekoak [galerak] minimoak direla. Azken finean, eskaera une oro non dagoen ikus dezakegu".

Glovok bere kontrolpeko sistema behar du. Bestela, ez luke funtzionatuko, bezeroei ezingo lieke kalitatezko zerbitzua bermatu. Behar hori ez da bateragarria Glovok *rider*-ekin izan nahi omen duen harreman lausoarekin, baina negozioaren ezinbesteko baldintza da.

GATAZKA UKATZEA

Kapitalismoaren gehiegikerietatik babesteko tresna da gobernua, liberal tradizionalen arabera. Sillicon Valleyko teknologista edo teknolatren arabera, ordea, ez da benetako gatazkarik existitzen, gaizki-ulertuak baizik. Ondorioz, gobernuak gizarte-proiektu eraberritzaileetan inbertitu besterik ez luke egin behar. Gizarte-gatazkaren existentzia nabarmendu edota onartu nahi duen edonork egiatan bere interes berekoiak baino ez omen ditu gogoan.

Podcast-elkarrizketa batean, Michaudek esan zuen Glovok bere langile "autonomoen" baldintzengatik jasotzen dituen kritikak "sindikatuen ameskeriak" direla, "haien garrantzia galtzearen beldur direlako". Badirudi benetan uste duela sindikatuek boterea gutizia hutsagatik nahi dutela —asmo txarra, beraz— eta Glovok, aldiz, mundu hobea eta konektatuagoa eraikitzeko nahi duela boterea —asmo ona—.

Ekintzaile horien ustez, Facebook moduko enpresa batek munduko arazoak konpon ditzake "mundu guztia elkarrengana hurbilduz". Pentsaera horrek agerian uzten du zer-nolako bizitza pribilegiatuak izan dituzten horrelako ameskeria bakunetan benetan sinesten dutenek.

GAINBEGIRATZEARI UKO EGITEA

Enpresa mota horiek gobernua inbertitzaile huts gisa ikusten dute, ez jendearen babesle; hortaz, ez dute haren inolako gainbegiratzerik onartu nahi. AEBetan, konpainia horiek nahiko ezagunak dira legea etengabe urratzeagatik, inolako lotsarik gabe.

Twitterren, Michaudek zera adierazi zuen: "Ezin dugu teknologiaren garapena geldiarazi, baina lege berriak egin ditzakegu guztiongan eragin justu eta onuragarria izan dezaten". Jarraian, Espainiako presidenteak langile autonomoen legeei buruz esandako hitzak manipulatu zituen: "[Sanchezekin] erabat ados gaude, araudia berritu behar dugu lan-harreman mota berriei lekua egiteko". Halaber, Glovoren ustez, "gobernuak horren aldeko eztabaida publikoa susta lezake egungo fase konplexua gainditzeko".

Funtsean, Michaud egungo legearen guztiz aurka dago. Bere jarreraren arabera, gobernuak eta Glovok elkarrekin lege berriak negoziatzen hasi beharko lukete, Glovoren interesen neurrira. Demagun denda bat lapurtu nahi dudala; ondoren, lapurreten fenomenoa geldiezina dela adierazten dudala; gero, mundu guztiari ergelei bezala azaltzen diodala dendak lapurtzen ditudan mundu batean lapurretei buruzko legeak ez direla egokiak; eta, azkenik, esaten dudala gobernuak lege berriak nirekin negoziatu behar dituela, nire lapurreta legala bihurtuko dutenak, alegia.

SUNTSIPEN SORTZAILEA ETA ALDAKETAREN ERLIJIOA

Fenomeno horren faktorerik kezkagarriena "suntsipen sortzailea" da. Sillicon Valleyko goiburu ospetsuak honela laburbiltzen du kontzeptu hori: "Mugi bizkor eta apurtu gauzak".

Sacha Michauden hitzetan: "Uste dugu Glovok arin hedatu behar duela. Benetan arin. Azkar mugitu eta hedatzen ez bagara, gureak egin du". Alegia, ekinez ikasten dela. Ideia hori ona da kazetaritza edo zurgintza ikasteari buruz ari garenean; ez, ordea, ekonomiaren sektore osoak berrantolatzeari buruz ari bagara. Pentsaera horrek ez ditu kontuan hartzen egon litezkeen ezusteko ondorioak, ez eta inolako ondoriorik ere . Beharbada, Michaudek eta Pierrek benetan uste dute asmo ona izate hutsarekin mundua hobetuko dutela.

Beren ustez, Facebook moduko enpresa batek munduko arazoak konpon ditzake, horrek agerian uzten du zer-nolako bizitza pribilegiatuak izan dituzten

Aipatutako Sillicon Valleyko filosofiaren elementuek antzekotasun kezkagarria dute XX. mende hasierako italiar futuristen edo Henry Forden gisako estatubatuar enpresarien printzipioekin. Futuristek teknologia eta aldaketaren boterean sinesten zuten, eta aurrera egiteko iraganekoa hautsi egin behar zela defendatzen. Elite pribilegiatua osatzen zuten, sexista eta arrazista, eta haien iritziz artistek eta teknolatrek eskubide osoa zuten aurrerapena kosta ahala kosta sustatzeko, "abiadura eta bortxaren kultua" sortuz. Azkenean, garaiko diktadura faxisten zale amorratu bihurtu ziren.

Ideiak aldatu egiten dira denborak aurrera egin ahala eta aurrerakoia zirudien zerbait erraz bihur daiteke munstro atzerakoi, ez baldin bada era horizontal, demokratiko eta berdinzalean eraiki. Orain inoiz baino gehiago, sortzen ditugun enpresak eta proiektuak ideietan oinarritzen ditugu, ez produktuetan. Ideia horiek arretaz aztertu behar ditugu mundua "haustera" iritsi baino lehen.

Garai hartan nahiko argi zuten irakaspen bat berrikasi behar dugu. Edward R. Murrow AEBetako kazetariaren hitzetan: "Gure arazoen irtenbidea ez dugu goiburu sinpleetan aurkituko; hori ondo ulertzea ezinbestekoa dugu". ●

OSASUN ZENTROAK UDALERRI EUSKALDUNETAN

Bost langiletik batek ez daki euskaraz

2018ko datuek diote halakorik. Bi urtean behin egiten dute kontaketa, eta datuek hobera egin duten arren, zerbitzua euskaraz ematea bermatzetik urrun dagoela uste dute UEMAko udalerriek. Azken albistea Urola Kostatik iritsi da, hainbat herri euskaldunetarako familia-mediku erdalduna ekarri dutelako. Osakidetzak dio euskal profesionalak falta direla, eta beraz, hezkuntzan eragiten hasteko beharra ikusi dute.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA UEMA

Ez diot ezer ulertu medikuari". Ez da, ziur asko, kasu bakana izango Haritz Alberdi Getariako alkatearen alabari gertatutakoa. Pediatrarengana joan eta herrian inoiz komunikatzeko arazorik eduki ez arren, osasun-etxean bestelako gertakaria jazotzea harriduraz hartzen da. Herri txiki askotako anbulatorioetan, ulergarria denez, arlo jakin batzuetarako mediku edo langile bakar bat ezartzen dute bai Osakidetzak baita Osasunbideak ere. Ulergarria egiten ez dena, aldiz, Getariako alkatearen iritziz, herri bakoitzaren ezaugarriak aintzat ez hartzea da. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko partaide diren herrietako biztanleen %70ak baino gehiagok daki euskaraz –Getariaren kasuan gehiagok–, eta badira makina bat herritar arazoak izan dituztenak anbulatorioan artatzerako orduan; komunikazio falta edota arrotz sentitu izana. Getariaren kasua Deba, Aramaio, Usurbil, Elgeta, Leitza eta Goizuetaren parekoa da: zenbait herrik medikua partekatzen dute inguruko beste herriekin, eta posible da pertsona horrek hizkuntza eskakizunak ez betetzea –askotan gertatzen da pediatren kasuan–. Hala, Alberdiren alabari gertatu zitzaion bezala, haurra medikuarekin komunikatu ezinik gelditu zen.

Komunikatu bat zabaldu zuen UEMAk uztailaren lehenengo astearen amaieran, Aizarnazabalgo, Zestoako, Zumaiako eta Getariako alkateen sinadurarekin. Urola Kosta eskualdeko lau herri hauetan aurrez aipaturikoa gertatzen da: medikua partekatzen dute herriotan; kasu honetan, familia-medikua. Langileak herritarren hizkuntza eskubideak ez dituela errespetatzen salatu zuten Osakidetzara bidalitako oharrean, eta udako oporraldietan egiten diren ohiko ordezkapen kontratua ez ezik, jarraitzeko aukera berarekin daraman kontratua ezarri diotela adierazi zuten. Alegia, arazoa ez dela oporraldiko kontua izango, uda ondoren ere jarrai dezakeela. Honela zioten oharrean: "Udalerri hauen errealitate linguistikoa kontuan izanda, behar-beharrezkoa da profesional euskaldunak bermatzea".

"EZ DAGO PROFESIONAL EUSKALDUNIK"

Datuak argitaratzen dituzten bakoitzean horrela erantzuten die Osakidetzak, hala dio UEMAko Eneritz Albizuk: "Beraiek diote saiatzen direla euskal profesionalak lehenesten, baina ez dituztela behar beste aurkitzen zerbitzua euskaraz ematea bermatzeko". Horri erantzunez, UEMAk administrazio publikoari egindako eskaera unibertsitatean eta hezkuntzan eragitea izan zen, hizkuntzari behar adina garrantzi ematea; hots, osasungintza euskalduntzeko neurriak errotik hartzea. Eskaeraren parte izan zen osasungintzako ikasketak euskaraz egitea hautatzen duten ikasleei plaza gehiago gordetzea, eta hala edo nola, pasa den ikasturtearen hasiera aldera Euskal Herriko Unibertsitateak esku hartu zuen unibertsitaterako sarbidea erregulatzen: datorren ikasturtetik aurrera plaza kopuru bat gordeko du euskaldunentzat. Baina kopurua ez da plazen erdira ere iristen eta gutxiegi direla dio UEMAk.

Hezkuntzan jarri dute fokua, Osakidetza horren atzean ezkutatzen dela medio. Medikuntza arloko ikasleek urtero salatzen dute euskarazkoei oztopoak jartzen zaizkiela osasunbidea euren hizkuntzan ikasteko. Bukle moduko bat bihur litekeela uste du Albizuk: "Oztopoak ekidin eta ikasketak arazorik gabe burutzearren ikasle euskaldunek gaztelerara jotzen badute, normala da profesional euskaldunak faltatzea. Beraz, oztopoak hezkuntzan jartzen jarraitzen baldin badugu, ez gara sekula osasungintza benetan euskalduntzera iritsiko".

DATUAK BEHINTZAT HOBERA

Iaz, lehen aldiz, osasunbideko adar gehiago aztertu zituzten UEMAko kideek: erizainak, harrerako langileak eta larrialdietako medikuak. Horri gehitu behar zaizkio lehendik ere kontaketan

sartzen zituzten familia-mediku eta pediatrak. EAEko UEMAko partaide diren udalerrien kasuan, aztertutako langile guztien %14 inguruk ez du hizkuntza eskakizunik betetzen, eta aldiz, Nafarroaren kasuan, %68ra igotzen da ehunekoa. Mankomunitatea osatzen duten 87 udalerrietatik ia guztiei eragiten die egoera horrek; zerbitzu orokorrean ez bada, larrialdietan.

Ia udalerri gehienetan datuek hobera egin edo bere horretan jarraitu duten arren, 2016an bezala, kezkagarriena pediatren kasuak izaten jarraitzen du: %30ak ez du euskara menperatzen. Beste hainbeste dira familia-medikuen zein erizainen kopurua, baina Eneritz Albizuren ustez are larriagoa da haurrak euskaraz artatu ezin izana. Aurrez aipaturiko Urola Kostako kasuaz gain, Nafarroako egoeraz hitz egin digu. "Goizueta, Leitza eta Aresok euskaraz ez dakien pediatra bakarra dute hirurentzat, eta Berako kasua are larriagoa da: bi mediku, pediatra bat eta harrerako beste pertsona bat dute, eta laurak erdaldunak dira".

Alor batzuetan Osakidetzak kontu handiz jokatzen duela uste du Albizuk. Harrerakoen kasuan, adibidez, euskaraz jakitea lehenesten dutela dirudi: %8ak soilik ez daki euskaraz UEMAko udalerrietan. Aldiz, larrialdien kasuan nabari da ezetz: "Larrialdietako medikuen erdiak baino gehiago dira euskaraz ez dakitenak, eta halako egoera sentikorretan komunikazioa erraztu diezaioke pazienteari".

"Ez dugu alde batera utzi behar datuek hoberantz egin dutela", dio Albizuk. Aurrerapausoak eman direla dio, batik bat Osakidetzak martxan jarritako euskara planaren eta beste zenbait ekimenei esker. "UEMAk aitortzen du saiakera bat egiten ari direla, eta positiboki baloratzen da, baina iruditzen zaigu zerbitzua euskaraz ematea bermatzetik urrun dagoela oraindik".

PROFESIONALTASUNA ETA EUSKARA, BIDE BERETIK

Sarri esan izan da elebakar erdaldun profesionalei boikot moduko bat egitea dela UEMAk egiten duen salaketarekin bat egitea. Askotan eztabaidatzen da zer den garrantzitsuagoa, euskaraz jakitea ala mediku ona izatea. UEMAren ustez bide beretik doaz biak: euskaraz ez dakien medikuak ezin dio kalitatezko zerbitzua eman pazienteari, egiten duena egiten duela, gaixoa arrotz sentitzen bada berea sentitzen ez duen hizkuntzan mintzatzera behartuta. Pazientearen hizkuntzan komunikatuz gero, komunikazioa erraztu eta enpatia sentitzera heldu daiteke kontsultako harremana, hala uste du Albizuk: "Euskaraz jakitea mediku ona izatearen baitan dago; ez da gure gutizia, gure eskubidea da". ●

BABESLEA: LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

Lezoko Unibertsitateko Udala
UDAN EUSKARAZ Blai!
ARGIA 1919·2019

BELDAR JANTZIA

Sits kamuflatuak, zein loretan bazkatu nahi duen, lore horren petalo zatiak ebaki eta bere bizkarrean tente-tente itsatsiko ditu. Harrapariei non den igartzea ederki kostako zaie.



Sits bat bizi da Ipar Amerikan, hegal berdeetan marra mehe zuri izurtu batzuk erakusten dituena. *Synchlora aerata* du izen zientifikoa, eta sits esmeralda izurtua edo sits kamuflatua esaten zaio. Sitsaren ezaugarri nabarmenena bere hegalen esmeralda kolore hori da. Sitsak hego dotoreak hedatu aurretik, ordea, hanka punttetan ibili beharra dauka; sits izan aurretik beldarra da, sona handiko beldarra.

Geometridae familiakoa da intsektu hori. Geometridae grekotik osatutako izena da, eta lurra neurtzen duela adierazten du. Familia horretako intsektuen beldarrak ez dira arrastaka ibiltzen, hanken gainean baizik. "Hazbetearen beldarra" ere esaten zaio, izan ere, mugitzeko atzeko hanken gainean zutitu eta gorputza luzatuz aurrekoen gainera jaitsiko da. Ibileran lurra, hazbetez hazbete, neurtuz balihoa bezala.

Beldarrak konposatuen edo lore-elkartuen familiako landareen loreak ditu gustuko: margarita erreginaren *Aster* generokoak, urrezko makilaren *Solidago* generokoak, zizare-belarraren eta asentsio-belarraren *Artemisia* generokoak, milorriaren *Achillea* generokoak eta *Rudbeckia, Ageratum, Ageratina, Ambrosia* eta *Liatris* generokoak. Konposatuak ez direnei ere ez die muzin egiten; tartean, aindurrinaren eta salbiaren *Salvia* generokoak, santio-belarra edo milazuloa (*Hypericum perforatum*) eta arrosazeoetako laharraren eta mugurdiaren *Rubus* generokoak eta arkakaratsaren eta arrosaren *Rosa* generokoak.

Oraintxe loretan ditugu landare horiek gehienak. Lasai hartu eta jarri loreari begira. Lehen begi kolpean ez duzu ikusiko. Bigarren begiratu batean ere ez, seguru asko. Halako batean lorean mugimendu arraroren bat suma dezakezu; lorearen zati bat gainontzekoarena ez den dantza batean. Sits kamuflatuaren beldarra da. Izan ere, hortik datorkio kamuflatuarena. Zein loretan bazkatu nahi duen, lore horren petalo zatiak ebaki eta bere bizkarrean tente-tente itsatsiko ditu, kanpotik lorearen beste petaloen antzera antzeman daitezen. Horrela lore bakoitzean bertarako ezin egokiagoa den kamuflaje batekin jantziko da, eta txoriei eta bestelako harrapariei non den igartzea ederki kostako zaie. Deskuidoan lore berean edo berdinean lasai batean jaten jarraitu nahi badu eta bizkarreko petalo puxkak zimeldu eta higatu eta marguldu badira, horiek kendu eta berriak jantziko ditu. Izan ere, horixe beldar jantzia. ●

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

IRAKURLEAK GALDEZKA

Aurten bertoko artoa eta arto komertziala aldatu ditugu soroan, biak elkarren segidan. Bertoko artoa bi mota dira: artaburu bat horia eta bestea gorri kolorekoa. Hurrengo urterako gordetzeko asmoa edukiko bagenu, arto komertzialaren ondoan izateak hibridazioa izango luke? Eta zertan nabarituko litzateke? (Iosu Aizpurua)

Hiru arto motak elkarren artean hibridatzea izango da naturalena eta normalean gertatuko dena.

Hibridiatzeak esan nahi du aurten jasoko duzun hazietan hiruren arteko ezaugarrien nahasketa joango dela. Nahiz eta horia, gorria eta hibridoa jaso, hazi horiek daramaten informazioa, hurrengo urtean emango dituzten landareetan ikusiko da. Adibidez: altura desberdineko landareak, artaburuen forma, artaleen egitura, aleen forma eta kolorea eta abar.

Hori ez gertatzeko hazitarako jasotzeko klase bakoitzetik artaburu pare bat aukeratu eta burua egiten hasten denean eta punttan bizarrak ateratzen diren bezain pronto aldameneko bere berdinaren goiko lore arra hartu eta poltsatxo batean sartu lore hori eta poltsarekin artaurua itxi. Honela bere berdinaren polena soilik jasoko du eta ez da besteekin nahastuko. Gero beste buruetako bizarra zimeldu dela ikustean poltsa kendu, baina artaburu horiek ondo markatu, hurrengo urterako hazitarako jasotzeko. ●

Bidali zure galdera:
jakoba@bizibaratzea.eus

LIZARRAKO PLAZARA! PROIEKTUA

ETXERAKO EROSKETAK BERRIZ ERDIGUNEAN EGITEKO MERKATUA

GARAZI ZABALETA

Iazko uztailean jarri zuten martxan Lizarran Plazara! egitasmoa, modu jasangarrian ekoitzitako bertako produktuen eta eskualdeko ekoizleen hileroko merkatua. "Hilabeteko bigarren larunbatean egiten da azoka, goizean. Zuzeneko salmentako merkatua da, produktuak ekoitzi eta eraldatzen dituzten ekoizleek hartzen dute parte bertan", azaldu du azokaren asistentzia teknikoa egiten duen Arrea elkarteko Ester Montero kideak.

BERTAKOA ETA JASANGARRIA

Tokiko produktuen merkatua bada ere, ez da horretara soilik mugatzen Plazara! proiektua: bertan eskaintzen diren produktuek gutxieneko irizpideak bete behar dituzte. "Lizarraldean egindakoak du lehentasuna, baita ekologikoak ere. Hau da, ekoizpen ekologikoan diharduten ekoizleek merkatuan parte hartzeko lehentasuna dute besteen aldean", dio Monterok. Gaineratu du, egun merkatuan parte hartzen duten 33 ekoizleetatik erdiak baino gehiagok eskaintzen dituztela produktu ekologikoak.

Ekoizpen ekologikotik ez datozen produktuek bete beharreko zenbait irizpide dituzte ezarrita antolatzaileek, baremo baten moduan: ekoizpen familiar txikiek, abeltzaintza estentsiboan dihardutenek edota bertako arrazak darabiltzatenek lehentasuna dute, esaterako. "Garrantzitsua da guretzat bertako produktuen merkatua soilik ez izatea. Horretatik harago, merkatu jasangarria izatea bilatzen dugu".

EROSKETA SASKIA BETETZEKO AZOKA

Duela urtebete proiektuari ekin ziotenean 22 ziren parte hartzen zuten ekoizleak. Urtebetean asko egin du gora ekoizleen kopuruak, eta merkatuak duen erantzun onarekin lotzen du bilakaera hori Monterok. "Plazara!-k ez du Erdi Aroko merkatuek biltzen duten jendetzarik, baina hori baino garrantzitsuagoa den zerbait du: jendea erosketa saskiarekin dator, benetan etxerako erosketak egitera". Azoka larunbatetan jartzeko arrazoietako bat izan zen jende gazteagoari ere erosketak bertan egiteko aukera ematea, eta badirudi funtzionatzen ari dela.

Lekaleak, barazkiak, fruta, olioa, arrautzak, ardoa, garagardoa, ogia, gozokiak, boilurrak, gazta, fruitu lehorrak, hestebeteak, kontserbak... denetik eskura dezakete Lizarraldeko herritarrek Plazara! merkatuan. Saltoki erraldoiek periferietara mugitu bazituzten erosleak, horri buelta eman eta Lizarrako erdigunea berreskuratu nahi du proiektuak. "Tokiko ekonomia berpizteko aukera ematen du azoka honek: komertzio eta ekoizpen txikiak bultzatu eta lurraldeari lotutako jarduera indartu". ●

Basherri sarea
GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK
info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus
HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1986ko irailaren 21a

KOLDO IZAGIRRE

Norena den eskultura hau? Ez da ezein artistarena, baina gu bizi garen artean irauten du. Desguazetik txapa batzuk hartu eta soldadura elektrikoarekin josirik osatu genuen.

Duintasunaren omenez.

Edonork ukatuko luke bere burua izuaren bulegoan. Hala ere, edo beharbada horregatik, badago torturatuari kenduko ez dioten duintasun bat. Testigantza deritza. Eta testigantzarik lazgarriena utzi zigun hark: heriotzeraino jaitsi behar izan zuen lekuko izateko. Gehiegi da krimen hartaz dakiguna, badakigu nork, bakakigu non, badakigu nola. Eta haren gorpuaz dakiguna ere gehiegi da, gezurraren pauso guztiak dakizkigu.

Bihar, ausaz, haren martiritza aitortuko dute tribunalek; bihar, eskultura xume bat baino kale bat edo plaza bat merezi duela erabakiko dute agintzen dutenek, edo eskultura berri bat auzo berriren batean.

Baina hura hilik ikusi genuenok ez daukagu eskultura ofizialen premiarik. Erreka hark leundutako edozein harri zaigu oroimen. ●

ARGIAK 100 URTE

1965-2012

Bertso berriak ARGIAn jarriak

MIREN OSA GALDONA

1965eko otsailaren 21ean eman zitzaion hasiera bertso jarrien atalari *Zeruko Argia*n. Iñaki Eizmendi Manterolak "Basarri"k *Nere Bordatxotik* atal finkoa zuen, eta haren alboan egin zien lekua irakurleek bidalitako bertsoei. "Ereñozu ballarako Luistar bat dezute ondoren irakurriko dituzuten bertsoen egille. Donosti'n izandako Aizkora Txapelketa gai artuta, ara zer lore sorta eskeintzen dion Polipaso'ri. Maiteak dira bertsolariak *Zeruko Argia*n. Poz pozik ematen dio toki Ereñozu ballarako luistarrari".

Handik aste gutxira, atal berriak izandako harrerarekin harrituta, mezua idatzi zien Basarrik igorleei hainbat ohartarazpenekin: "Oso ondo ari zerate portatzen euskaldun bertsolariok. *Zeruko Argia*k eztauka asteroko bertso sail onen paltan gelditu beldurrik. Lan asko dauzkagu jasota, ta danak batera ezin argitaratu. Txandaren zai egon bearra dago oraingoz. Ez ordea estutu, denborarekin danak azalduko dira ta. Pozik gera ain langille agertzen zeratelako".

Geroztik 2010eko hamarkada hasierara arte, *Zeruko Argia*n aurrena eta 1980tik ARGIAn ondoren, etenak eten, bertso jarrien atalak txoko bat izan zuen astekarian.

80 eta 90eko hamarkadetan, ilustrazioz eta argazkiz hornituta atera izan zituzten bertsoak. Beraien sinadura kazetari edo ARGIAko kolaboratzaile gisa ezagunagoa den batek baino gehiagok ere osatu zituen bertsoak, eta ezizenez sinatu. Kartzelatik jarritakoak ere argitaratu zituzten, bat baino gehiago.

2006an *Bertso Berriak* atala eraberrituta kaleratu zuten. Puntako bertsolariak eta irakurleentzat berriagoak zirenak aritu ziren bertan idazten. Iritzi sailean leku finkoa lotuta, sei bertso argiratzen ziren astero. Berezko funtzioa eman nahi zitzaion bertso jarrien atalari: gaurkotasunari buruzko iritzia modu artistikoan ematea eta irakurleek buruz ikasi eta kantatzea, bertso hauen bizitza astekaritik harago irits zedin. Sorta horietako batzuk oso ezagunak egin ziren, grabatu eta diskoetan kaleratzeraino. Esaterako, Jokin Sorozabalek Olentzerori jarritako bertsoei Mikel Markezek musika gehitu zien. Markez bera arduratu zen Uxue Alberdiren "*konplize ditut eta maite ditut denak*" musikatzeaz, Amaren Alabekin batera. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ere beren diskoan sartu zituzten Amets Arzallusek jolasari eginikoak.

Sei bertsotik hiru bertsoko zutabea izatera pasatu zen bertsoaren bozgoragailua 2012an. Geroztik ez du bertso jarrien atalik astekariak. Ez du esan nahi, aurrera begira izango ez duenik. ●

Gure bertsolariak
NERE BORDATXOTIK
SAVIN
'EGUNEROKO ARDOA'
«SIERRAS ALAVESAS»

1965eko irailaren 21ean Ereñozuko luistar batek jarritako sorta hauxe da *Zeruko Argia*n atera zen lehenengoa. Ia 40 urteko soka ekarriko zuen.

EUSKAL PRESO POLITIKOEN GUTUNAK

Euskara dispertsatuari distantzia moztuz

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Eskutitz zoragarriak jasotzen ari gara azken aldian ARGIAn. Irudikoa ikusi besterik ez dago. Asko dira Frantziako eta Espainiako kartzeletan ARGIA jasotzen duten euskal presoak, eta oraindik ere urrunegi daudenen artean ARGIAren komunitatea handitzen ari da. Bazter haietatik ari dira heltzen kartok, eta pozez jasotzen gu, mimoz betetako hitz eta marrazkiak.

Euskal presoen sakabanaketak euskararen dispertsioa ere esan nahi baitu, ARGIAk hizkuntza dispertsatuaren distantzia mozteko tresna izan nahi du; barrote arteraino iritsi eta euskara eta Euskal Herria gertuago senti ditzaten, noski, baina baita handik etxera idatzitakoa argitaratzeko aukera eman nahi du.

Horretarako irekiko dugu leiho txiki bat orri honen alboan, hurrengo astetik aurrera. Komunitateak sare sozialetan edo posta elektroniko bidez esan izan dizkigunak argitaratu izan ditugun moduan, ARGIA leitzen duten euskal preso politikoek ere izan dezaten aukera hori. Mila esker orain arte idatzi dizkiguzuen gutunengatik!

Hemen duzu, irakurle, jaso dugun aurreneko eskutitzetako baten hainbat pasarte. Fermin Vila Mitxelenak idatzi du Alicanteko espetxetik eta izenburu hau jarri dio: *Bizi nahi duen herria. Ibai ertzeko ihesaldia*. "Ez da, ez ahuntzaren gauerdiko eztula Kapitalismoaren neoliberalismo zeken eta nardagarri horren haizeek kupida barik kolpatzen duten tenpus hauetan, ARGIA lezko proiektu bat irizpide ekonomikoetatik at dantzatzea; merkatu-askearen demokrazia horretan, diruaren kantak eta sumisioaren koloreak ordezkatu baitituzte kontzientzia eta borroka. (...)

Hargatik, haize guztiak ez daude haien alde, berehalako emaitzak alboratu eta bide luzearen arabera inbertsio errentagarritasuna neurtzen duen ikusmoldea erabat antikapitalista baita, are eta gehiago hasibide horri kontzientzia eta borroka gehitzen zaionean; alegia, euskarak pairatzen duen sakabanaketaren aurka dihardutea edota informazio eskubide unibertsalaren baitako praxian bizitzea. (...)

Zuen mendeurrenak ere ozen erakusten du nazio-askatasuna, norberak bere nazio hizkuntzan eta kulturan bizitzeko aukera, norberak bere identitate-errefentzietan sozializatzeko eskubideak ez direla zerutik behera erortzen mirari bat izango balitz legez, ezta ere meteoritu bat lez, bizitza berau dira-eta! Eta noski, hizkuntza eta kulturaren eskubideak giza eskubideen maila berean jartzen ez dituenak ez daki zer den duintasuna. Identitate-beharrak gizatasunaren berezko ezaugarri direlako".

Jaso dugun kartazalik politena azkena izan da, ordea. Astekaria iritsi zaigu bueltan gazteleraz "*devolver remitente*" jartzen duela zigilu batean, eta eskuz idatzita funtzionarioren baten oharra "*Libertad*". Ongi etorria izan da karta, eta motibo beragatik bueltan etorriko diren aldizkarien zain geratzen gara. ●

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *ARGIA Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

KAFE ANTZOKIAN BAZKARIA
BI LAGUNENTZAKO
MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Abuztuak 1, osteguna, 10:00etan

Ilargiaren alde iluna

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Berlin, 1945eko maiatzaren 8a. Alemaniarren kapitulazioak II. Mundu Gerraren amaiera ekarri zuen eta, berehala, AEBek *Overcast* operazioa –gerora *Paperclip* operazioa izango zena– jarri zuten martxan; ahalik eta zientzialari alemaniar gehien eramango zituzten AEBetara, haien zerbitzura arma eta teknologia ikerketan jardun zezaten. Guztira 1.600 zientzialari bildu zituzten.

Ezkutuko operazioa zuzenean Harry Truman presidenteak baimendu arren, baldintza garbi bat jarri zuen: galarazita zegoen nazien alderdiko kideak edo naziei babesa eman zieten ikerlariak errekrutatzea. Agindua zuzenean beteta, bildutako zientzialarien kopuruak eta kalitateak nabarmen egingo zukeen behera. Askoren espedienteak garbitu, iragana zuritu eta hala gainditu zituzten "oztopo etikoak".

Adibide garbienetakoa Werner Von Braun izan zen. SSetako kide, *V2* suziriaren sortzaile nagusietakoa izan zen. Suziria egiteko gerra-presoak eta bestelako eskulan esklabua erabili zuten, eta milaka hil ziren prozesuan. *V2*ek, gainera, triskantza handiak eragin zituzten gerran, Ingalaterran batez ere. Garbiketa aurreko txostenak "segurtasunerako arriskutzat" jotzen zuen Von Braun, baina NASAren Marshall espazioko hegaldien guneko zuzendari izendatu zuten, eta duela 50 urte Apollo XI aireratzeko erabili zuten *Saturn V* suziriaren sortzaile nagusia izan zen.



NASA

NAZIEN ALDERDIKO ETA SS-ETAKO HAINBAT KIDEREN EKARPENAK FUNTSEZKOAK IZAN ZIREN DUELA 50 URTE GIZAKIAK LEHEN ALDIZ ILARGIRA ERAMATEKO.

Kurt Debus ere SSetako ofizial, eta nazien alderdiko zein SAko kide izan zen. Haren txostenak zioen "Indar Aliatuen segurtasunerako mehatxua" zela eta giltzapean egon beharko zukeela. NASAren jaurtiketa operazioen zuzendari izendatu zuten.

Hubertus Strughold fisiologoaren agindu, hainbat esperimentu egin ziren Dachau eta Auschwitz esparruetan: presoak tenperatura baxuetan uzten zituzten, presio txikiko gelatan sartzen zituzten, haur epileptikoei oxigenoa murrizten zieten... *Apollo*-ren presio-trajea eta espazio-ontziko sostengu sistemak diseinatu zituen eta "espazioko medikuntzaren aita" esan zioten.

AEBak ez ziren izan Gerra Hotzean eta Espazioko lasterketan ikerlari alemaniarren laguntza izan zuten bakarrak. Sobietar Batasunak ere ikerlarien errekrutatzea jarri zuen martxan gerra amaitu bezain pronto. Baina sobietarrek erabaki zuten zientzialari horiek "bigarren mailako" herritartzat tratatuko zituztela. AEBetan ohoreak eta dominak jaso zituzten; SESBen, aldiz, behartuta ahalik eta zuku gehien atera ondoren, Alemaniara bidaltzea erabaki zuten. Eta, ilargiratzeari dagokionez behintzat, badirudi estatubatuarren metodo adeitsuagoek emaitza hobeak izan zituztela.

Werner Von Braunen omenez, Ilargiko krater bati haren izena jarri zioten eta Kurt Debusek ere badu bere kraterra Lurraren satelite natural bakarrean. ●

SCIENCE ADVANCES

Filistiarrak: gaiztoak eta europarrak

Bibliaren arabera, filistiarrak Israelgo herriaren etsaiak ziren eta bi adibide garbi ematen ditu: Goliat, Dabid erregeak mendean hartu zuena; eta Dalila, ilea moztuta Sansoni indarra kendu ziona. Filistiarrak filmeko gaiztoak zirela, alegia.

"Erdaingabeak" zirela ere badio Bibliak, hau da, judutarrak ez zirela, baina haien jatorria gehiago zehaztu gabe. Greziar kutsuko zeramikari esker, adituek uste izan dute K.a. XII. mende inguruan iritsi zirela Ekialde Hurbilera. 1997 eta 2016 urteen artean hainbat nekropoli filistiar aurkitu dituzte Askalonen (egungo Israelen) eta berriki giza arrastoen DNA aztertuta ondorioztatu dute Europa hegoaldean zutela jatorria, Grezian, Kretan, Sardinian eta, agian, iberiar penintsulan ere bai. ●

ARGIA

ZENBAT GARA?



ARGIA komunitatea zenbat kidek osatzen dugun jakin nahi dugu.
Erantzun galdera honi mesedez:

Harpidetzaren atzean zenbat lagun zaudete?

ERANTZUNAK
zenbatgara@argia.eus · 943 37 15 45

Dena da irudi, baina jendeak ez du denborarik hartzen irudi horiek ikusteko”

ALAIN URRUTIA, MARGOLARIA

Sekula ez du txoririk marraztu, nahiz eta txori zale amorratua den. Txorien lumen atzetik hiriz hiri ibili nahiko luke, kolore desberdinen xerka, istorio desberdinen bila. Pintore izateak *rara avis* bilakatzen du; are gehiago oinarrian lan figuratiboak eta zuri beltzekoak izanik. Rara avis askea da, ordea.

GORKA EROSTARBE LEUNDA

Ez daki ziur bera ote den Oier Aranzabalen *Margolaria* dokumentala zuri-beltzean plazaratu izanaren *erruduna* –Mikel Urdangarin musikariaren esperientziatik abiatuta sortzailearen hautaketez, zailtasunez, bakardadeaz gogoeta egiten du filmak–. “Berak esan behar luke hori... Berez koloretan filmatua dago dokumentala. Argazki batzuk egin izan dizkit lehenago ere Oierrek, eta beti esan izan dit ezin izan dituela koloretan editatu. Dokumentalean ere berdin, nire partea editatzen hasi zenean ezin izan zuela koloretan egin”. Dokumentalean parte hartu zuen Alain Urrutiak ere (Bilbo, 1981), Urdangarin adiskideari nolabaiteko kontrapuntua eginez. Txori erraria da Urrutia. Bilbotik Londreserako hegaldia hartu zuen 2014an, eta hiruzpalau urtetan han izan zuen habia. Iaz, Berlinera jo zuen. Erronka berrien bila beti, hiri eta txori berrien bila, argi eta kolore berrien bila, baita zuri-beltzean izanik ere. Schönhauser Allen du estudioa; txikia, zuria. Mahai bat, pintzelez josia, pentsamenduaren txokoa arbel eta guzti, eta hiru horma bere lanez jantziak. Bertan hartu gaitu udaberri amaieran, Madrilgo Casado Santapau galerian *The Age of Anxiety* (Antsietatearen garaia) erakusketa egin aurretik.

Londrestik Berlinerako aldaketak ez dizu eragin: zuri-beltzean jarraitzen duzu.

Tira, zuri eta beltz asko dago. Hor zure atzeko hori zer da, beltza? [Bere lanetako bat seinalatuz] Ez, urdin bat ezta? Kolorea badaukate nire lanek. Kolorearen memoriarik ez daukagu, ordea. Zuri desberdinak daude eta beltz desberdinak: beltz hotzak eta beltz beroak daude; zuri hotzak eta zuri beroak. Zuri eta beltz diferenteak erabiltzen ditut eta batzuetan gehitzen dizkiet gorriak eta urdinak ere. Tonalitateak badaude eta erabiltzen ditut, baina jendeak ez ditu igartzen.

Margolariaren begiek laguntzen dizute beltz eta zuri horiek bereizten?

Arbolei deitzeko milaka forma dugu euskaraz, alturaren arabera eta fruituak ematen dituzten edo ez: arbola, zuhaitza, zuhaixka, zuhaiztxo... eta guk, gaur egun, ez ditugu horietako asko desberdintzen. Nekazariek, baserritarrek eta halakoek bai. Arroparekin lanean dabilen jendeak badaki koloreak bereizten. Nik orduak eta orduak sartu ditut koadroak egiten. Ikasi egiten da denborarekin ikusten ere.

Zuri-beltza erabiltzeak, nahiz eta anitzak izan, badu zuretzat sinbolismo berezirik edo kontu praktiko bat izan da hasieratik?

Sekula aipatu ez didaten kontua da praktikotasunarena, eta hasierako arrazoia hori izan zen: praktikoa zela. Ni oso alferra nintzen lanerako, eta lagun batek esan zidan: pintorea izan nahi baduzu, egunero pintatu behar duzu. Nahi duzuna egin nahi duzula ere, egunero egin behar da. Ez dago beste erremediorik, eta nik neure burua behartu nuen pintatzera.

PRINZ
2012

Hasi nintzen pintatzen erretratu bat eguneko. Nire asmoa zen halaxe urte oso bat egitea. 2006an izan zen hori, eta bospasei ordu igarotzen nituen erretratu bakoitza egiten. Kalera irten, ordurako sakelakoarekin, argazkiak ateratzen nituen, eta gero horren gainean egiten nituen erretratuak. Egunero egiten nuen bat. 86 bat egin nituen, denak zuri beltzean, eta arrazoia zen praktikoa. Errazagoa zelako.

Planteatu ere ez duzu egin oraingoz kolore biziagoetara jotzea?

Kolorea ageri da nire grisetan, eta azkeneko Madrilgo erakusketako lanetan aurreko lanetan baino askozaz nabarmenago. Horrek ez du esan nahi kolore biziagoetara saltoa egingo dudanik. Ez nago gustura kolore biziz inguratuta nagoenean, lekuz kanpo sumatzen dut neure burua. Gurean, naturan ere ez dago kolore bizirik. Eta, seguruenik bai, noiz edo noiz helduko da zeru gorri bat pintatzeko momentua, baina oraingoz ezin dut aurreikusi noiz gertatuko den. Oraingoz grisetan pintatzen jarraitzeko asmoa daukat, eta agertuko da kolorea agertu behar bada. Zea Maysen letrak dioen moduan: "... taupada bakoitzaz koloreztatuz zuri beltza".

***Margolaria* filmean kontatzen da musikari izateko hautuak zein zailtasun dituen, ingurukoen presioak eta abar, sarri ez delako lotzen ofizio batekin. Zuk noiz erabaki zenuen margolari izatea, eta bizi izan zenuen presio hori Mikel Urdangarinek bezala?**

Nik berez zientzietatik jo nuen, baina azken unean erabaki nuen artea nahi nuela ikasi. Gurasoek esan zidaten: "Alain, zientziatan ona zara, ingeniaritzek dute irteera, arkitektura ikasi...". Beno, azkenean onartu zuten, baina esan zidaten ea zergatik ez nuen diseinua ikasten Arte Ederren barruan, eta hala egin nuen. Gustatzen zitzaidan ordenagailuaren aurrean jartzea, marrazkiak egitea... Karrerako hirugarren urtean Italiara joan nintzen, Erasmus programaren bidez, Milanera. 2001eko irailaren 18an. Nik ez nekien ezertxo ere italieraz. Hor aldatu zen dena. Dorre bikiena gertatu eta astebetera. Egun horretan erabaki nuen pintore izango nintzela. Fakultatera iritsi eta galdegin zidaten: "Zer egiten duzu". Eta nik erantzun nuen: "Diseinua". Diseinua beraientzat *dibujo* da, margoketa. Orduan, pintura eta marrazketako irakaslea jarri zidaten. Nik jabetu nintzen akatsaz, baina isiltzeko erabakia hartu nuen. Orduan erabaki nuen pintatu nahi nuela, eta konturatu nintzen ez neukala estresik: pintatzen nuen garagardo batekin, klasean, lasaitasunez. Hortik pintura serio hartzera beste urrats bat dago, baina ernamuina hori izan zen.

Zure burua ia baduzu pintoretzat, margolaritzat?

Eztabaida zaharra da hori, norberak bere burua sortzailetzat hartzearena-edo. Nik lan egin izan dut ehorzle moduan Wisconsinen, egin dut lana turroia egiten, edota tabernari bezala; magoa ere izan naiz, kirola ere egin izan dut, batzuetan besteetan baino serioago... Nik ez nuke nire burua pintore moduan definituko, baina argi daukat besterik ez dakidala egiten... Ez dakit egiten dudanarekin inora helduko naizen, baina momentuz hau egiteko asmoa daukat. Grezieraz pintoreari *Zoegraphos* esaten diote. *Zoe* bizitza da eta *Graphos* idazlea; horrekin identifikatzen dut gehiago nire burua. Aspaldi nabil pinturarekin bizitza idazten.

> *"Erakusketen inaugurazioetan jendeak ez du ikusten obrarik ia. Hitz egiten du, ardotxo bat hartu, baina ez du denborarik hartzen obra ikusteko"*

Bilbotik Londresera joan zinen lehenik, handik Berlinera gero. Beti kontraste edo kontrapuntu bila?

Lagun batek dio beti egin behar dugula egiten ez dakigun hori. Eta neu saiatzen naiz ez dakidan hori pintatzen. Bestela ez dugu ezer ikasten. Jende asko eroso dago egiten dakien horrekin eta ongi da, baina nik behar dut ez dakidan horren bila joan. Bilbon oso gustura bizi nintzen. Kafe Antzokian lan egiten nuen, pintatu egiten nuen, nahikoa irabazten nuen, nahi adina kontzertu ikusten nituen... aparta zen bizimodua, ez nuen beste ezeren beharrik. Baina ezerosotasunaren bila joateko joera daukat. Horrez gainera, hizkuntza zalea naiz; duela urtebete heldu nintzen Berlinera. Alemana ikasten hasi nintzen, eta ez dut esango hitz egiten dudanik, baina komunikatzeko gai sentitzen naiz oso modu oinarrizkoan bada ere. Eta badakit hemendik beste norabait mugituko naizela eta ikasiko dudala beste hizkuntza bat. Non amaituko dudan badakit: Euskal Herrian. Tartekoa... bideak esango du.

Filmean bada sekuentzia polit-indartsu bat. Zu eta Urdangarin Londresen zaudete, noria erraldoi zurian igota. Eta ari zarete arrakastaz, goian edo behean egoteaz. Zer da arrakasta zuretzat?

Topikoa izango da, baina nik nahi dudana da trankil bizitzea. Pintatu, erakusketak egin eta bizitzeko adina irabazi. Ez dut behar gauza handirik. Ez nuke jakingo deskribatzen, baina lasaitasunarekin izan dezake zerikusirik.

Hori ez al dago kontraesanean ezerosotasunaren puntuarekin?

Bai, baina ezeroso egoteak ez du esan nahi ez zaudenik gustura. Kirolarekin gertatzen da hori. Esfortzu bat egiten duzu, ezeroso zaude, baina gero gustura geratzen zara, eta lasai sentitzen zara. Kirolarekin gertatzen den lasaitasun hori da nik nahi dudana. Zure lanak nolako harrera izango duen jendearengan ezin duzu kontrolatu. Nahi nukeena da nire lana ikusteko modua aldatzea jendeak, bere denbora aldatzea.

Zer esan nahi duzu denbora aldatzearekin?

Jendeak ikusten dituenean nire koadro txikiak, beste denbora bat hartzen du. Egiten dudana da jendeak artea nola kontsumitzen duen aztertu eta hori buruan eduki. Duela urte batzuk, Guggenheimen erakusketa jarri nuenean, pasillo bat nuen obrak jartzeko. Pasillo horretan jarri nuen obra bat lau metro eta erdikoa zena altueran eta hamaika metro zabaleran. Zergatik egin nuen hori? Distantziarik ez emanda ikusteko, handik igarotzen zenak erreparatuko zion, bai ala bai. Arte Ederretako ikaslea nintzen artean ia-ia, karrera amaitu berria. Jendea erakusketa handiak eta izen ezagunen lanak ikustera zihoan museora. Arreta pixka bat eskuratzeko horixe nuen aukera. Jendearen arreta eta denbora irabazteko. Erakusketen inaugurazioetan ikusten dut: jendeak ez du ikusten obrarik ia. Hitz egiten du, ardotxo bat hartu, baina ez du denborarik hartzen obra ikusteko. Instagramen berdin. Dena da irudi, baina denborarik ez du hartzen jendeak irudi horiek ikusteko. Horren kontra egin nuen bes-

te erakusketa bat, bederatzi koadro txikiz osatua. Estrategia erabat desberdina, hortaz. Zu galeria batera sartzen zara eta halako koadro txikiei erreparatzeko gerturatu beharra daukazu. Madrilen egin nuen erakusketak izenburutzat zuen *20 minutos de pensamiento abstracto*. Nik ez nuen azalpen-testu bat idatzi nahi koadro horiek ikusteko, ez nien begirada baldintzatu nahi.

Ez zara azalpen-testu horien zalea?
Ez zait gustatzen azalpen estuegiak ematea; eman ahal ditut pista batzuk, giltza batzuk, baina irakurketak zabalduko dituztenak edo ikusleari gehiago arakatzeko gogoa piztuko diotenak. Irakurketa ez mugatzea, gehiago zabaltzea da erronka.

***Margolaria*-n azaltzen da musikariak bakardadearekin duen harremana. Nolakoa daukazu zuk?**
Gaur egun zailtasunak ditugu kontzentratzeko. Horregatik ere jarri nuen izenburu hori: behar ditugu hogei minutu pentsamendu abstraktua garatzeko. Horretan askotan pentsatu izan dut korrika egiten dudanean. Bakardadea ona da pentsamendu abstraktu hori garatzeko. Estudio honetantxe orduak eta orduak pasatu ditut bakarrik. Estudiotik ez naiz apenas irteten. Eta ez naiz bakartia, soziala naiz. Baina, pintatzeak asko du bakardadetik; pintzela, oihala eta zu zeu. Koadro txiki baten aurrean orduak igarotzen dituzu. Produktibitatea artean erridikulua da. Orduak eta orduak sartu, baina akaso lan bakarra aterako zaizu baliagarria.

Denbora ematea da kontua...
Nik denbora asko behar izaten dut koadroak margotzeko, denbora asko hartzen dut. Ekainean erakusketa izan dut Madrilen. Erakusketa horretako koadroak pintatu nituen Berlinera ailegatu nintzenean. Iazko udan amaitu nituen, eta gero uzten dut arnas har dezaten, eta azken orraztua Gabonetan egin nuen. Artista asko azken unera arte egoten da gauzak aldatzen. Nik ezin izaten dut hori egin, eta era berean saiatzen naiz egindako lanak interneten ez erakusten aldez aurretik. Hedabideek eta egungo gizarteak abiadura eskatzen dute, eta ni saiatzen naiz hortik eskapo egiten. Jende askok esaten du: "Nik ikusita daukat koadro hori". Ez, ez, zuk ikusita daukazu koadro horren irudi bat Interneten, baina ez koadro hori.

Antsietatearen aurka, denbora?
Antsietatea da gaur egungo gure bizimoduan igartzen dudana... Eta hortik W. H. Audenen poesiaren izenburua erabili izana Madrilgo azken erakusketaren izenburutzat: *The Age of Anxiety*. Erabat desberdina da Audenek bere poema horretan islatu nahi duen antsietatea eta nik erakusketan islatu nahi izan dudana. Berean, Bigarren Mundu Gerra ostean gizartean geratzen den hutsunea da ardatz nagusia. Nirean, ordea, gaur egun irudiak edo bizitza irakurtzeko nabarmendu den errazkeria. Abiadura. Nik ikusleari nire lanak ulertzeko orduan arreta eskatzen diot, denbora.

Alain Urrutia duela lauzpabost urte Madrilgo ARCOn. Bilbon eta Londresen egin izan du lan eta Berlinen bizi da gaur egun.

Berlinen egoteak nola eragiten dizu artista modura, Euskal Herritik kanpo egoteak?
Niretzat arazotsuagoa litzateke une honetan han egotea, edo han izanik nola eramango nukeen pintore izatea. Pintura ez dago bogan Euskal Herrian. Han ez nuke leku bat izango ziur aski. Errespetu bat lortu dut, baina lortu nuen Madrilen erakusketak egiten hasi nintzenean. Madrilen ere ez nintzen inor, eta errespetua lortu nuen Londresera joan nintzenean, eta horrela...

Pintura ez dago bogan. Arte kontzeptuala edo perfromancea aldiz bai. Nola bizi izan duzu diziplinen arteko tentsio hori?
Pinturaren barruan ere *rara avis* samarra naiz, figuratiboa lantzen baitut. Ez dudala lortuko bidea egitea euren arauak segitzen, tira... XX. mende bukaeratik sarritan hitz egiten da pinturaren heriotzari buruz. Pentsalari asko izan dira pinturaren heriotzaz idatzi dutenak eta hori da gaur egungo pintore askok duten kexa, edo arte sistemaren barruan euren lekua topatzen ez dutenean euren buruen defentsan esaten dutena. Eskultore, argazkilari, performer edo bestelako artista bati galdetuz gero, oso antzekoak izango dira euren kezka eta ardurak, eta modu antzekoan egingo dute euren buruen defentsa.

Eta orain, zer?
Proiektuak baditut esku artean, Bogotan, Mexiko Hirian, Euskal Herrian... Nire buruari helmugarik jartzea ez zait gustatzen, ze hara iristen zarenean, zer? Norberari zangotrabak jartzea da hori. Pentsatu nire buruari jartzen diodala honako helburua: nahi dut Guggenheimen erakutsi. Egin nuen, eta? Orain zer? Horrelako helmugak jartzeak ez dauka zentzurik. Helburuak muga bihurtzea ez da ona.

Txoririk margotu duzu inoiz?
Ez, ez dut txoririk marraztu. Aspaldidanik dut txorienganako fijazioa... Londresera bizitzera joan nintzenean, bele luma bat topatu nuen parkean, eta luma horretan ordura arte pinturan bila nenbilen grisak aurkitu nituen. Orduz geroztik garbi izan nuen beste hiri batzuetara joango nintzela luma berrien bila. Ideia hori Itziar Koteronek nire lanari buruz egindako *Luma Berrien Bila* dokumentalaren abiapuntua da. ●

LIBURUA

Irakurtzen lehenetakoa

LAGUN IZOZTUA
JOSEBA SARRIONANDIA
ELKAR, 2001

ARITZ GALARRAGA

Han-hemenka irakurri izan diot Bernardo Atxagari Joseba Sarrionandia poeta ona iruditzen zaiola, handia; inon gero jarraian irakurtzeko halaber poemak idaztea erraza dela. Baina poeta ona izatea oso zaila, "eta bera bada". Sarrionandia. Azkenaldian saiakeragintzan ari da batez ere, emaitza nabarmenekin ari ere, Euskadi Sari polemiko bat tarteko. Nobela bat daukat, ordea, neronek behintzat, haren kutunen arteko.

Nobela bat, ia bakarra, ipuin luze gisa hartzen baitu askok narrazio laburra, *Kolosala izango da* izenekoa. Dena delakoarekin, *Lagun izoztua* bada. Beñat Sarasolak joan den hamarkadako albiste literario sonatuenetakotzat dauka. Eider Rodriguezek tesi oso bat eskaini zion –zehatzago, itsasoak Sarrionandiaren lanetan duen presentziari, *Lagun izoztua* hori bai aztergai nagusi–. Ezin uka liburuak baduela txungurra. Pertsonaiak: Goio, Maribel, Andoni. Lekuak: Antartika, Erdi-Hego Amerika, Kalaportu. Denborak: geroa, oraina, iragan garaia. Denbora kronologikoa desakreditatzen duela esango dizu Markos Zapianek, eta mugimendu dialektikoa. Denbora eta espazioaren inguruko gogoetak aupatuko ditu Iratxe Gutierrezek. Etxetik –dena delakoa dela etxearen kontzeptu hori– urrun denbora daraman honek, ordea, beste kontu bat nabarmendu nahiko luke: Sarrionandia, hain zuzen, erbesteratuaren paradigma, erbesteaz idazten irakurtzea. Hala hasten da liburua: "Ulisesen madarikazioa dun. Hemen bizi gaitun eta hara itzultzea dinagu beti gogoan, baina zenbat eta geroago orduan eta zailagoa dun". Baikorrago bukatzeko: "Eta zure mentura Ulisesena baino ederragoa izango da, edonora joanda ere, egundo egon ez zaren lekura itzuliko zarelako". Eta tartean hamaika kontu, irakurleok, denok erbesteratu, nahiz gure jaioterrian –baina bizitza arrotz honengandik–, jakingarri aurkituko ditugunak.

Joseba Sarrionandiaren obra gutxi-asko erdaratzen ari den garaiotan (gaztelaniara, luze gabe, baina baita katalanera ere), ez da ulertzen nola nobela hau ez dagoen itzulita oraindik, idazlearen obrara sartzeko ezin egokiagoa izanik, ondo jasotzen baititu haren bideak, haren gaiak, haren kezkak. Eta poeta ona izateaz gainera eleberrigile nabarmena baita. Itzulpen zerrenda horretan hurrena beharko luke honek, eta, originalen artean, irakurtzen lehenetakoa. ●



DISKOA

Norberaren bidea

SHERPAK
DEUS EZ
AUTOEKOIZPENA, 2019.

IKER BARANDIARAN

Deus ez da lortzen trukean musika pretentsio askorekin egiten hasiz gero, publikoaren onespen berehalakoa nahi izanez gero. Aldiz, musika egiteko indarra eta motorea zuk zeuk disfrutatzea bada, bide luzea daukazu aurretik eta asko daukazu disfrutatzeko. Hori da gakoa. Eta horixe da, hain zuzen ere, arrakastaren, arrakasta propioaren, giltza. Hala bizi du Eibar eta Azkoitiko kideak dituen Deus Ez hirukoteak. Aurretik dozenaka batailatan trebatuak, 2017an proiektu honi hasiera ematea erabaki zuten motibazio eta sinesmen handiz eta hala jarduten dute.

2017an *Deus Ez* izeneko lan luzea kaleratu zuten rock-etik, punketik eta metaletik edaten duena. Harrera ona izan zuen eta urte berean Amurriock lehiaketako lehen saria eskuratu zuten. Horri segidan, 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatutako Katapulta ekimenaren biran parte hartzera gonbidatu zituzten.

Orain *Sherpak* diskoa kaleratu dute eta begi bistan dago emaitza bestelakoa dela, jauzia egin dute kantak borobiltzen eta bila ari diren soinua lortzen. Hainbat dira hirukotearen emaitzan batzen diren musika ulertzeko eta bizitzeko estiloak; baina bat egiten dute eta aurrera doaz ingurukoari begiratu gabe. Josu Ervitirekin grabatu dute Drum Groove Studion eta masterizazioaren ardura Victor Sanchezek hartu du.

Garaile kantak arranke gordina dauka, rock zikin distortsionatua nahiz eta erdi tempo melodikoak tartekatzen dituen. *Hegoak*-ek asko edan du Nirvanaren ondorengoetatik eta malenkonia eta urratzea daramatza batera. *Urrun* poperoa bada ere, gitarra riff misteriotsu-eder batek gidatzen du. *Sua*-k badu goxotasunetik, hard-rocketik eta metalaren pisutik. *Kateak* balada da, hegoaldeko hard-rocketik metalera amiltzen dena. *Pozoia* hard-rock, grunge eta progresibo entsalada. *Leizeari begira* Weezer eta distantzian Pixies gogora ekarri didan kanta melodiko-jostaria. *Erruki jauna* bada nolabait QUOTSAren gorazarrea. Eta *Sherpak* kanta goibel bezain ederra. ●

Biluzten bagara errazagoa da

IRATI MAJUELO ITOIZ

IBIL BEDI MUSIKA TALDEAREN KONTZERTUA

NOIZ: ekainak 7
NON: Karrikiri, Iruñea

Joan, ez joan, zalantzan egon nintzen. Ekaineko lehen ostirala, lagunekin plana eta lau pareten artean egoteko gogo gutxi. Baina, hala ere, bazen zerbait kontzertura bultzatzen ninduena. Ez nituen lehenago entzunak (zaila, taldearen hirugarren emanaldi publikoa baitzen hura), baina ezagunak nituen eta banekien zerbait zekartela esku artean, zerbait ona. Joanez gero, damutuko ez zaizula esaten dizun zerbait hori. Hala ba, lagun bat konbentzitu (garagardo pare bat tarteko) eta Karrikirira hurbildu ginen.

Zain zeuden atean taldekideen senide eta lagunak, baita Iruñeko euskal kultura zaleak ere, ez baita alferrik Karrikiri hiriko euskaldun eta euskaltzaleontzako zutarri eta nukleo. Barnean, betiko liburu eta arropa tartean, sabaitik zintzilikatutako bonbilek argitzen zuten oholtza inprobisatua, *Hitzen Hotsak* kontzertuetarako erabili ohi duten zoru zatia. Mikrofonorik ez, bozgorailurik ez. Hiru ahotsetan hasi zuten kontzertua pertsona bakar bat gehiago ere hartu ezin zezakeen publikoaren aurrean: *Beterik gatoz sendagaiz, gu prest gaude ta hi non haiz, bidea hasi da ta ibil bedi, berandu da baina garaiz.* Ez dakit berandu ote zen, baina bai garaiz. Noiz ez da garaiz gitarra, saxoa eta bibolina hartu, baxuari eta bateriari hots egin eta bidean hasteko? Haiek ere bazekiten, ibili ahala garaiz izanen zirela beti.

Biluzten bagara, errazagoa da idatzi zuen behin Sarrionandiak. Eta badirudi Ibil Bediko taldekideek ere hala uste dutela. Anplifikagailurik gabe, soinu gordinez aurkeztu baitziren Amets, Ibai, Areta, Javi eta Eder gure belarrietara. Entxufatu gabe, musikaren eta entzuleen artean harresirik eraiki gabe. Ahots biluziz, baina baita barrenak biluztera ere.Hasiera-hasieratik utzi zuten argi familiarteko kontzertua zela hura. Kantu bakoitzaren abiapuntua azaldu zuten, baita entzuleak galderak egitera animatu ere. Emaitza: giro intimoa, publiko emozionatua eta zortzi kanta, Ametsek esan moduan, herratik baino gehiago galeratik kantatuak, egiatik, zenbaitetan mingots baina gehiegizko dramarik gabe, bizitza bezain gordin eta soil. Eta Itoiz eta Balerdi Balerdiren bi bertsio eder, gazte hauek baino lehenago sortuak, eta bereziki adin batetik gorako entzuleak dantzan jarri zituztenak. Ostiral arratsalde hartarako ez zen gehiagorik behar.

Eta hau idazten ari naizelarik, egun batzuk joan dira kontzertua entzun nuenetik (are gehiago, bigarren kontzertu bat ere entzun nuenetik), eta bitarte horretan, Ibil Bedik burua atera du Euskal Herriko panorama musikalean. Niri damurik ez zait agertu ostiral iluntzea Karrikirin pasatzeagatik, eta orain zortzi kantako diskoa entzuten da behin eta berriz nire salako bozgorailuetatik. Ibil bedi! ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

GAIA: *Gasteizko parkeak*

1. LIBRE, ASKE / MIRARI
2. BERRIKETA GOGAIKARRIA / BAKOITZAREN JOKAMOLDE
3. 1 / MODU ATZIZKIA
4. LISTUA / ELKARTU
5. METEORITO MOTA / ZEZEN ZIKIRATUAK
6. IRARTZEN DUENA / 2
7. UHARTE / ...GRISO, BIKOTE KATALANA
8. IDI HITZELKARKETAN / GARAI, DENBORA
9. OSORIK, ERABAT / ERREPIKATUA, LOGURAREN EULIA
10. EZEZKOR / APIKA, AGIAN
11. ZORROZTASUNIK GABEAK / JAINKO FENIZIAR
12. JARDUN, ERAGON / HATSA
13. GELDI, LASAI / SOFIAKO HERRITAR
14. LOKARRI SENDOA / BADA
15. BIHOZBERAK, ERRUKITSUAK / KOBRANTZA
16. DOLAREAK / NIHAUR
17. DAGO / EUROPAKO IBAIA
18. TXIT / ZUHAITZAREN BESO
19. 3 / NAIZEN HAU
20. ZAKUR
21. BOHRIOREN IKURRA / JAINKO EGIPTOARRA
22. ... HOC, LATINEZKO LOKUZIOA / NOR, PLURALEAN
23. 4 / LUZAROAN IRAUTEN DUENA

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3	6		9	4			7
	8						1	
			8	5				3
			3				2	
8	6		2		5		7	9
	1				7			
6				3	1			
	5						3	
3			9	4		8	6	

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Letra.
2. Zezen zikiratuak.
3. Iruzurra, engainua.
4. Koaderno.
5. Beldurra, izua.

EBAZPENAK

5X5:

1. HIZKI
2. IDIAK
3. ZIRIA
4. KAIER
5. IKARA

2	3	6	1	9	4	5	8	7
5	8	4	7	2	3	9	1	6
1	9	7	8	5	6	2	4	3
7	4	5	3	8	9	6	2	1
8	6	3	2	1	5	4	7	9
9	1	2	4	6	7	3	5	8
6	2	8	5	3	1	7	9	4
4	5	9	6	7	8	1	3	2
3	7	1	9	6	4	2	8	5

				I	R	A	U	N	I	K	O	R		
					A	R	R	I	A	G	A			
				N	I		B	H		A	D			
				F	L	O	R	I	D	A		O	R	
N	E	U			O	A	K	O	R		D	A	S	O
	L	A	K	O	A	K		O	N	B	E	R	A	K
A	R	N	A	S	A		O	N	B	E	R	A	K	
	A	R	I		B	A	R	E		S	O	K	A	
P	R	A	D	O		K	A	M	U	T	S	A	K	
	I			I	R	L	A		I	T		O	U	
				B	O	L	I	D	O	A				
				M	I	R	A	K	U	L	U			
				L		K		J		T				

María Luisa Garde

EDITOREA ETA HISTORIAN DOKTOREA

"Pertsonen duintasuna ikusten ez dutenak dira analfabeto sentimentalak"

Analfabetos sentimentales. Historias con acondroplasia y más… (Analfabeto sentimentalak. Akondroplasia historiak eta gehiago…) liburuaren egilea da. Nanismoa edo altura txikia duten pertsonez jardun du. Akondroplasia da nanismoaren eragile handiena; gene zehatz batean mutazioa ematen da eta hezur luzeak ez dira handitzen. Bildutako testigantzek sarri hunkituko dute irakurlea.

XABIER LETONA
IBAN AGINAGA

Zenbat pertsonak du akondroplasia Nafarroan?
Ez dugu halako pertsonen erregistrorik. Euren gertuko giroan guztiz integratuta egon arren, akondroplasiak bazterketa handia izan du gizartean eta, horren ondorioz, familia askok ezkutatu egin ditu. Pentsatzen da 20.000-25.000 bat pertsonatik, batean gertatzen dela mutazioa. Beraz, Nafarroan egon daitezke 20-25 pertsona.

Akondroplasia, nanismoa... nola deitu behar ditugu pertsona hauek mingarria gerta ez dadin?
Bere izen eta abizenez. Kolektiboa izendatu behar badugu, akondroplasia edo hezur displasia duten pertsonak edo ADEE duten pertsonak. Nanismoa duten pertsonak ere esan daiteke. Begirunez eta naturaltasunez hurbildu behar dugu haiengana, parean jarri, ezagutu eta pertsona gisa jokatu.

Akondroplasia gaixotasuna edo izateko modu bat da?
Gaixotasun arraroen multzoan sartzen dute baina izateko modu bat da. Pertsona hauek ez daude gaixo, halakoak dira: hezur luzeak ez zaizkie hazten, eskuak ezberdinak dira, entzumen hodiak estuagoak dituzte... Hezurrak ez haztean desproportzioak sortzen dira gorputzean, eta honek historian zehar barrea eta iseka ekarri dizkie, bufoi gisa, zirkoan...

Medikuntzaren ikuspegitik asko aurreratu da urte hauetan?
Bai, asko. Saiatzen ari dira mutazioa eragiten duen genea blokeatzen, horrela hezurra hazi ahal izateko. Hainbat tratamendurekin esperimentazioan ari dira eta uste dut hurrengo belaunaldiek hobekuntza ugari izango dituztela.

Gaur egun hezur-elongazioa –hezurrak luzatzea– da gehien erabiltzen den tratamendua. Zure galdera da: "Elongazioa mirari modernoa da, edo identitate positibo baten ukazioa?"
Elongazioa tratamendu luzea, mingarria eta oso garestia da. Ezbaian

GIZA ESKUBIDEAK ALDARRI

"Iruñean jaioa naiz 1964an eta Txantrea auzoan bizi naiz. Historian doktore izateak asko lagundu dit liburua egiten, eta ohikoan ere liburu artean nago, Urgoiti Editores argitaletxe txikian egiten baitut lan. Baina lan hau idazteari ekiteko inspirazio iturri nagusia akondroplasia duen nire iloba Maia Sola izan da. ALPE Fundazioko Carmen Alonsoren bultzada ere giltzarri izan da. Hizketaldi luze horietako batean zera luzatu zidan: 'Tori titulu hau –titulua berea da- eta idatzi liburu bat. Eta erronkari heldu nion, funtsean, hau duintasuna eta giza eskubideen aldeko aldarria da eta'.

"AEB-ETAKO KORRONTE BATZUENTZAT ELONGAZIOAK UKATU EGITEN DU NANISMOA DUTEN PERTSONEN IDENTITATEA".

dago, eta erantzuna oso pertsonala da. Ebakuntzan hezurrak apurtzen dira, hezur barruan iltze luzagarriak txertatzen dira eta mekanismo baten bidez egunero milimetro bat luzatzen da hezurra. Jakina, hezurraz gain, giharrak, tendoiak eta nerbioak ere luzatu behar dira. Horrek min handia eragiten du, zauriak hilabetez mantentzen dira zabalik eta etengabe sendatu behar dira. Zein da kontua? Munduko korronte batzuentzat, batez ere AEBetakoak, elongazioak ukatu egiten duela nanismoa duten pertsonen identitatea. Hemen, aldiz, hezurdura orekatzeko modu gisa ikusten da eta, gainera, hesi arkitektonikoak saihesten dira, edo higiene pertsonala ahalbideratu. Akondroplasia bizitza osorako da, baina elongazioarekin bizitzaren hainbat alor erraztea bilatzen da.

Bazterkeria eta estigma ohiko ezaugarriak dira akondroplasiaren historian. Ari gara aurreratzen?

Ez behar adina. Akondroplasiaren mundua oraindik ere ikuskizun munduarekin, barrearekin eta isekarekin lotua dago. Oraintsu debekatu dute instituzioek kontratatzea pertsona hauek erabiltzen dituzten ikuskizunak. Duela ez asko, akondroplasia duen pertsona talde bat Europako Legebiltzarrera joan zen ALPE Fundazioak lagunduta eta Bruselako kaleetan era guztietako isekak jaso zituen.

"Jar ezazu nano bat zure ezkongai festan", *streeptease* eginez adibidez. Oraindik ere halako iragarkiak irakur daitezke. Itzela da, baina Juanek dio beretzat lan normal bat gehiago dela.

Normal-normala ez da. Mutil hau ume zenetik aritu da ikuskizunaren munduan, eta bere aktore balioez gain, ez dute kontratatzen dituen dohainengatik, akondroplasiak ematen dizkion ezaugarriengatik baizik, eta hori oso mingarria da beste askorentzat. Abokatuak, irakasleak, medikuak... izan nahi dute eta betiko irudi horrek kalte egiten die.

"Integrazioa nire alabarentzat? Ez, eskerrik asko", dio Margarita Guinovart Marinaren amak liburuan, "nire alaba guztiz integratua dago".

Ulertzen dut. Marina pertsona den neurrian, amak uste du alabari berez dagokiola integrazioa, ez duela eskatzen ibili beharrik. Niri ere emakume gisa gustatuko litzaidake berdintasuna aldarrikatu behar ez izatea, askotan amorratzen nau horrek, baina errealitatea kontuan hartuta, borrokatu egin behar dugu.

Ezgaituak ez, batzuetan super-pertsonak dira.

Haien artean ere denetarik dago. Denok ditugu gaitasunak eta ezgaitasunak, eta haiek gainerakoak bezalakoak izan nahi dute, ez heroi ez biktima.

Nor da analfabeto sentimentala?

Soilik pertsona izateagatik edozein pertsonari dagokio duintasun guztia. Hori ikusteko gai ez dena da analfabeto sentimentala. Akondroplasia duten haurrekin haurdun diren emakumeen aurrean medikuek erakutsitako hamaika jarrera desegokiri buruzko kapitulu bat dago liburuan; hortik atera da titulua. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Arantza Tapiak aurkeztuko ditu ETBko albistegiak, emaitza bera baliabide publiko gutxiago gastatuz lortzeko

ARANTZA TAPIAK ARANTZA TAPIARI ELKARRIZKETA EGIN DIO AURKEZTU DUEN LEHEN ALBISTEGIAN.

Eusko Jaurlaritzak aste honetan iragarri dituen neurrien artean, askok espero zuten erabaki bat dago: Arantza Tapiak aurkeztuko ditu aurrerantzean ETBko albistegiak, bai euskaraz, bai gaztelaniaz. "Dagoeneko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburua minutu gehiago agertzen da aurkezleak baino, beraz, urrats logikoa zen notiziak zuzenean berak ematea", esplikatu du Arantza Tapiak berak aurkeztu duen lehen informatiboan. Arantza Tapiaren komunikazio-gaitasuna eta gai ugariri buruzko jakintza aipatu ditu Arantza Tapiak izendapenari buruzko albistean eta gaineratu du eguraldi iragarpena eta kiroletako informazioa ere Arantza Tapiak emango dituela: "Arantzaparrada" izena jarriko diote lehenbiziko sailari eta "Arantzarmaila" bigarrenari. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Goi-bilera hor barruan egingo dute

Eneko Goia, Txantxillo eta Markel Olano

Marie Kondoren arabera, oporretara seme-alabetako bat bakarrik eramatea aski da

Etxea ordenatzeko aholkuak ematen dituen Netflixeko saioan, udako oporrei buruzko programa berezia egin du txukuntasunaren guru japoniarrak. Edozein bidaia egitean haurrek leku gehiegi okupatzen dutela esplikatu du eta beraz, "behar beharrezkoak" diren haurrak bakarrik eraman behar direla. "Batekin aski bada, zertarako eramango dituzu gehiago?", azaldu du. Era berean, maletan gehienez liburu bakarra sartzeko ere gomendatu du eta, liburua Fernando Arambururena baldin bada, "zero liburu" dela kopuru egokia azaldu du. Azkenik, bainujantziek okupatzen dutena kontuan izanda, hondartza nudistetara joateko esan die ikus-entzuleei. ●

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra,1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Aktualitatearen

gakoak

2019ko abuztua

Egin zaitez ARGIAkoa uztailaren 24a baino lehen eta etxera bidaliko dizugu



Udan patxadaz gozatzeko

ARGIA Jendeak etxean jasoko du, eskatu beharrik gabe.
Gainerakoek: Erosi ARGIAren Azokan

AZOKA.ARGIA.EUS · AZOKA@ARGIA.EUS · 943 37 15 45

ARGIA